


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016-2017 ikasturtea

## ANTZERKI MUSIKALA OINARRIZKO HEZKUNTZA FORMALAREN CURRÍCULUMEAN TXERTATZEAREN ONURAK

**Egilea: María Piérola Corral**

**Zuzendaria: Lourdes Cilleruelo Gutierrez**

Leioan, 2017ko Irailak 12

## AURKIBIDE OROKORRA

SARRERA .....	3
1. MARKO TEORIKO ETA KONTZEPTUALA .....	4
1.1. ANTZERKI MUSIKALA .....	4
1.1.1. Antzerki musikalaren testuinguruaren kokapena .....	4
1.1.2. Antzerki musikalaren definizioa eta ezaugarriak .....	5
1.2. ANTZERKI MUSIKALA HEZKUNTZAN .....	6
1.2.1. Zergatik landu antzerki musika hezkuntza formalean? .....	6
1.2.2. Antzerki musikalaren bidez Lehen Hezkuntzako Curriculum landuz.....	9
1.2.3. Nola landu antzerki musika hezkuntza formalean .....	11
2. ANTZERKI MUSIKALEAN OINARRITUTAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA .....	13
2.1. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA .....	13
2.2. ARAZO-EGOERA .....	14
2.3. ESPAZIO ETA DENBORAREN ANTOLAKETA .....	14
2.4. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA .....	14
2.5. PRINTZIPIO METODOLOGIKOAK .....	15
2.6. BALIABIDE METODOLOGIKOAK .....	15
2.7. JARDUEREN ZERRENDA .....	15
2.8. CURRICULUMAREKIN LOTUZ .....	16
3. LANAREN GARAPENA .....	18
3.1. HASIERAKO FASEA .....	18
3.2. GARAPEN FASEA .....	19
3.3. APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA .....	19
3.4. OROKORTZE- ETA TRANSFERENTZIA-FASEA .....	20
4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK .....	21
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	24
ERANSKINAK .....	26
1. ERANSKINA: JARDUEREN ZERRENDA ETA AZALPENA .....	26
2. ERANSKINA: SAMANIEGO ESKOLAREN TESTUINGURUAREN AZTERKETA .....	31
3. ERANSKINA: ERABILITAKO MATERIALA .....	34
4. ERANSKINA: MUSIKALAREN GRABAZIOA .....	41
5. ERANSKINA: MUSIKALAREN KARTELA .....	42
6. ERANSKINA: PROIEKTUAREN ARGAZKIAK .....	43

## ANTZERKI MUSIKALA OINARRIZKO HEZKUNTZA FORMALAREN CURRICULUMEAN TXERTATZEAREN ONURAK

María Piérola Corral  
UPV/EHU

Ikasketa batzuk antzerki musikal hezigarriak umeengan hainbat onura dituela erakutsi dute. Dena den, antzerki musikalaren ikerkuntza baliabide didaktiko gisa, oso mugatua da hezkuntza formalaren alorrean, ikerketa gehienek Curriculumetik kanpoko proiektuak lantzen baitituzte. Horrela izanda, lan honek, antzerki musikalak duen potentzial didaktikoa aztertzen du eta dakartzan onurak erakusten ditu. Esku hartze pedagogiko baten bitartez, ikasleek ezarritako helburuak lortu dituztela frogatu da; beraien motibazioa eta taldean lan egiteko gaitasuna hobetu dute eta arte eszenikoez gozatu dute hezkuntza giro egoki batean. Beraz, ikerketak antzerki musikal baliabide didaktiko gisa erabiltzearen onurak erakusten ditu.

*Antzerki musikal, hezkuntza, baliabide didaktikoa, Lehen Hezkuntza*

Algunos estudios han demostrado que el teatro musical educativo tiene diversos beneficios en los niños y niñas. A pesar de todo, la investigación sobre el teatro musical como recurso didáctico en la educación formal es muy escasa, ya que la mayoría de los estudios trabajan en proyectos extracurriculares. Este trabajo estudia el potencial didáctico del teatro musical y expone los beneficios que conlleva. Mediante una intervención pedagógica se ha comprobado que los alumnos han conseguido alcanzar los objetivos, mejorar su motivación, su capacidad para trabajar en equipo y que han disfrutado de las artes escénicas en un ambiente educativo adecuado. El estudio nos muestra los beneficios de utilizar el teatro musical como medio en la educación formal.

*Teatro musical, educación, propuesta didáctica, Educación Primaria*

Some studies have shown that educational musical theatre has several benefits among the children. However, the musical theatre research as a teaching resource in formal education is quite poor, because most of the studies work at extracurricular projects. This essay studies the musical theatre educational potential and its advantages. Thanks to a pedagogical method it has been proved that the students have achieved the objectives, improved their motivation, their ability to work in a team and that they have enjoyed the performing arts in a proper educational atmosphere. The study shows us the benefits of using musical theatre as a mean in formal education.

*Musical theatre, education, didactic proposal, Primary Education*

## **SARRERA**

Antzerki musikalaren ikerkuntza baliabide didaktiko gisa, oso mugatuta da hezkuntza formalaren alorrean; musikalak, jatorriz, ez baitziren hezkuntza esparrurako sortu, baizik eta artista profesionalen mundurako (Howard, 1990). Hala ere, Watkins-en (2005) aburuz, hezkuntza zentro batzuk antzerki musikala erabili izan dute beste alorretako adimeneko ikasleak artera erakartzeko. Horrela izanda, antzerki musikal hezigarria umeengan onura asko dituela frogatu da, ikasgela batean egiten den ohiko lanetik harago joaten delako (Sample, 1964). Dena den, egindako ikerketa gehienek Curriculumetik kanpoko proiektuak ikertzen dituzte, hezkuntza formala alde batera utziz. Madrilen, antzerki musikaleko ikasketak burutu ondoren, eta mundu hori sakonki ezagutu ostean, honek barnean hartzen dituen hiru diziplinak (antzerkia, dantza eta kantua) eta hezkuntza formala bateratzearen nahia sentitu nuen. Lan honetan zehar, antzerki musikalak dakartzan onurak ikertuko dira, besteak beste, diziplinartekotasuna eta sormena.

Atzera begirada bat emanez, Delalandek (1995) dioen moduan, artea irakasteko metodologiak imitazioan eta interpretazioan oinarritu ohi direla ikusiko dugu; ikasleen adierazpen- eta pertzepzio-gaitasunak mugatzen (Alcázar, 2010). Antzerki musikalaren bidez Curriculumean aipatzen diren gaitasunak lantzeko, imitazio ereduak erabiltzeaz gain, sormenaz baliatuz lan egitea gomendatzen da. Gainera, arte eszenikoek ez daukatenez ia tokirik gaur egungo hezkuntza formalean, ikasleek esparru berri bat ezagutzeko eta horrekin esperimentatzeko aukera edukiko dute, arteaz gozatuz eta Curriculuma, diziplinartekotasunaren bidez, era didaktiko batean barneratuz. Horrela izanda, antzerki musikalak duen potentzial didaktikoa aztertzea du helburu nagusi lan honek. «Antzerki musikala Curriculumeko gaitasunak diziplinartekotasunean lantzeko baliabide didaktiko gisa erabiltzearen onurak» hain zuzen ere.

Horretarako, antzerki musikala hezkuntza formalaren barnean sartzeko proposamen didaktiko bat aurkeztuko da esku hartze baten bitartez. Horretarako, Oinarrizko Hezkuntzaren 3. mailako ikasleekin egindako proiektu bat diseinatu, martxan jarri eta aztertuko da, Gasteizko Samaniego eskola publikoko ikasleekin. Ikasleek, antzerki musikal bat sortuko dute; modu honetan, musika, kanta,

interpretazioa eta dantza umeengan gerturatuko da era integratu, ludiko eta sortzaile batean, umeen sormena bultzatuz eta Lehen Hezkuntzako Curriculuma landuz.

Horrela izanda, lanean zehar, aipatutako esku hartzea aurrera eramateko ezagutu beharreko datu teoriko batzuk aztertuko dira. Hala ere, gaiari buruzko ikerketa gutxi daudenez, esperientzia pertsonalarekin eta egindako ikasketa eta behaketekin lotuko dira datuak, lana aurrera eramateko orientabideak emanez. Ondoren, esku hartzea inplementatzeko jardueren planifikazioa eta aholkuak aurkituko ditugu. Jarraian, honen emaitzak eta ondorioak aztertuko ditugu, aurkitutako arazoak eta behatutako alderdiekin.

Amaieran, zenbait informazio interesgarri erantsiko da eranskinetan; hauen artean, egindako jardueren azalpena, eskolako analisia, erabilitako materiala...

## **1. MARKO TEORIKO ETA KONTZEPTUALA**

Jarraian, esku-hartzea aurrera eramateko ezagutu beharreko datu batzuei buruz ikertuko da. Hasteko, antzerki musikala bere testuinguruan kokatuko da eta haren definizio bat emango da. Ondoren, antzerki musikala hezkuntza alorrean aztertuko da.

### **1.1. ANTZERKI MUSIKALA**

#### **1.1.1. Antzerki musikalaren testuinguruaren kokapena**

Antzerki musikalaren oinarriak, antzinatek aurkitzen dira; k.a. V. eta III. mendeetan zehar, musika, dantza eta dramaren barneraketan, Greziako komedia eta tragedietan. Erdi Aroan, juglareek istorioak kontatzen zituzten beraien kanten bitartez. Ondoren, XVII. mendean, Frantzia, «*comédie en vaudeville*» sortu zen, abesti popular eta letra komikoz beteriko antzerki-entretanimendu arina. XVIII. mendean, Alemanian, «*Sing-play*»-ak hartu zuen garrantzia; eta Ingalaterran, «*balada opera*». Estilo guzti hauek, elkarrizketak barneratzen zituzten musika saioen artean (DK Publishing, 2015).

Hala ere, XIX. mendean agertutako «*oprette*» frantsesa izan zen antzerki musikal modernoaren bidea zehazten lagundu zuen estiloa. Horren ondorioz, antzerki musikala loratzen hasi zen Amerikako Estatu Batuetan; bertan, egoitza nagusia ezarriz,

aisialdirako jarduera moduan (DK Publishing, 2015). Denborarekin, herri- eta politika-adierazpen bitarteko indartsu bat bihurtu zen, gizarteko eguneroko erlazioen tentsio eta adiskidetasunak antolatuz. Antzerki musikala, AEBetako nortasun sozial, kultural eta politikoarekin erlaziona dezakegu (Walsh eta Platt, 2003).

### 1.1.2. Antzerki musikalaren definizioa eta ezaugarriak

Walsh eta Platt-en (2003) aburuz, antzerki musikala, abestiak, elkarrizketak, interpretazioa eta dantza barnean hartzen dituen genero bat da. XX. mendetik aurrera, «musikala» bakarrik deitzera pasatu zen. Umorezko, patetismozko, maitasunezko, amorruzko eta abarreko obren mami emozionala eta kontatzen den istorioa, hitz, musika, mugimendu eta ikuskizunaren alderdi teknikoen bidez komunikatzen da, dena integratuta.

RAEk, Real Academia Española-k, hurrengo moduan definitzen du antzerki musikala: «género teatral o cinematográfico de origen angloamericano, que incluye como elemento fundamental partes cantadas y bailadas».

Hala ere, musikalaren hainbat definizio aurkitzen ditugu. Joe Deer-ek (2014), hurrengo moduan definitzen du:

Musical theatre is a curious animal in the world of live performance. On one hand, it is exactly like a play, where you create an imaginary world for actor to play out the story. This involves interpretation and expression of the text, decisions about movement and behaviour for each character, and visual communication of the world of the script through design and composition. Yet, with all these similarities, there is a great deal of difference in the theatrical world of most contemporary drama and that of musical theatre (3.or.).

Honen oinarriak sakonki ulertzeko, elkarrizketen bidez lortutako zenbait adituen iritzia aurkeztuko da.

El teatro musical debería ser una sinergia armoniosa entre el canto, la danza, la interpretación y quizás otras disciplinas artísticas en un escenario o ante una cámara a favor de una narración dramática (Lautaro, komunikazio pertsonala, urtarrilak 22, 2017).

El teatro musical es para mí uno de los géneros teatrales más complejos. En él no sólo se habla o se canta (como en el teatro de texto o la ópera) sino que se hacen ambas cosas a la vez. Y en ocasiones, incluso se baila. La complejidad de poner juntos sobre un escenario estos lenguajes es mayúscula. Por poner un ejemplo: texto y música se rigen por leyes temporales diferentes. El tiempo del texto es indefinido. Sin embargo, el

tiempo de la música es tremendamente determinado. Las canciones tienen una duración determinada. Un actor que se enfrenta a un monólogo de texto, tiene un tiempo indeterminado para realizar acciones o transiciones emocionales. En las canciones, esas acciones o transiciones se deben hacer en la duración de un compás o un número de compases determinado (D. Rodríguez, komunikazio pertsonala, urtarrilak 31, 2017).

Ikusten dugunez, antzerki musikala oso genero zabala da. Hots, aipatutako ezaugarriez gain, ezin ditugu musikal guztietan ezarriko diren arau finko batzuk zehaztu, honen barruan mota askotakoak baitaude.

Hala nola, batzuetan, neurritz gorako interpretazioarekin azaltzen da (*Mamma Mia*, *Hairspray*) eta beste batzuetan, antzezpen errealistekin (*Les Misérables*). Askotan, pertsonai batek ahohandiko antzezpen bat irudikatzen du, umorezko papera betetzen ohi duena (*Matilda*), besteek errealismoan geratzen diren bitartean. Bestetik, batzuetan hainbat protagonista daude (*RENT*) eta beste batzuetan, pertsona baten bizitzan oinarritzen da obra (*The Panthon of the Opera*). Beste ezaugarri bat aipatzekotan, musikalaren arabera, ahotsa modu desberdinetan erabiltzen dela esan daiteke; beraz, artista berak musikal bat edo beste bat egitean, ahots tinbre desberdinak erakutsiko ditu (Julia Möller, *Bella y Bestia* musikalean eta *Hair* musikalean). Antzerki musikala oso zabala da, beraz, beste hainbat ezaugarri badaude ere, hurrengo honekin amai daiteke: batzuetan, dantza taldeak abesten du dantza egiten duen bitartean (*Wicked*) eta bestetan, dantza egitea da beraien eginkizun bakarra, abesten duen beste talde bat baitago (*El rey León*).

## **1.2. ANTZERKI MUSIKALA HEZKUNTZAN**

Aipatu bezala, hurrengo atalean, antzerki musikala hezkuntza alorrean kokatuko dugu. Hasteko, zergatik hau lantzea onuragarria den ikusiko dugu; ondoren, Lehen Hezkuntzako Curriculuma aztertuko dugu esku-hartzearekin erlazionatu ahal izateko; amaitzeko, musikal bat aurrera eramateko esku-hartze honetan zehar nola landu behar dugun eta irakasleak ze nolako rola eduki behar duen aztertuko dugu.

### **1.2.1. Zergatik landu antzerki musikala hezkuntza formalean?**

Aurretik aipatu bezala, antzerki musikalari buruzko ikerkuntza hezkuntza alorrean, oso mugatua da; are gehiago, Curriculomaren barruko jardueretan. Hala ere,

honi buruzko interesa nabarmenki handitu egin da ikastetxeetan azken urteetan, ikasleak artearen mundura erakarriz (Watkins, 2005). Izan ere, Sjoerdsma-ren (2004) egindako hausnarketei esker, zenbait zentrotan, Curriculumetik kanpoko antzerki musikala, ikasturtearen ekitaldi popularrenetarikoa dela jakin izan dugu. Gainera, hezkuntzaren osotasunezko eskematik hurbilago dago beste edozein jarduera artistikotik baino (Fields, 1970).

Zenbait autore desberdinen ustetan, antzerki musikalak onura ugari ditu ikasleengan. Hauen artean, hezkuntza formalaren esparruaren barnean, diziplinartekotasuna eta sormena lantzeko aukera azpimarratuko dira.

Diziplinartekotasunean, Javier Retegui-ren (2004) hitzetan, «ikasleek aurre egiten diete arazoei, kasuei edo proiektuei era integratuan, jakintza eremu eta diziplina askotatik abiatuta». Modu honetan, ikasleek proiektu motibagarri batean barneratuko dira eta irakasleak Curriculumeko diziplina desberdinak landuko ditu osotasun baten barruan, antzerki musikala ardatz moduan edukiz.

Francisco Menchén-en (1998) aburuz, gaur egungo eskolak umeen gaitasunen osotasuna lortzeko, sormen bolada berri bat behar du; eta antzerki musikalak, hau sustatzeko aukera ematen du. Adibidez, sormena eta dantzaren arteko lotura eginez, Ruano eta Sánchez-en (2009) hitzetan oinarrituz, pertsona bakoitzak haren dantzatzeko era aurki dezake, gorputz adierazpen eta komunikazio baliabide moduan; mugimenduak sortuz, barne mundua transmitituz gorputz hizkuntzarekin eta barne sormena garatuz. Eisnerren aburuz (2004), ezer ez da zailagoa, existitzen ez den eta plasmatuta ez dagoen ideia bat izatea baino. Irudikatzeko funtzio hori, posibilitate, aukera eta ideia berriak ahalbidetzen ditu. Aurkikuntzaren alderdi horrek, pertsonen hazteko aukera ematen die.

Torre eta Violant-en (2003) ustetan, sormena, Curriculumeko helburuetan abordatu behar da heziketa-eduki eta estrategia moduan, hezkuntza eta ebaluazio jardueretan. Gainera, sormena heziketa-edukitzat, trebetasun eta gaitasun-kognitibo, -afektibo, -pragmatiko eta jarrerazkogaitasunak garatzeko aukera ematen du. Sormen



proiektu osotu baten estimulazioak, izatearen, jakitearen, egitearen, nahi izatearen eta eustearen dimentsioak barneratzen ditu.

Horrez gain, antzerki musikala hezkuntza formalean lantzean, beste hainbat onura agertzen dira.

Pérez-Aldeguerek (2013) egindako ikerkuntzari esker, antzerki musikal hezigarriak, jarduera hau burutzen duten pertsonengan, onura sozial anitzak dituela frogatu egin da. Diziplina honetan bereziki, ikasleek, zeregin anitzetan parte hartzeko aukera dutelako, beraien bizitzarako gaitasunak garatzen dituzten bitartean. Watkins-en (2005) aburuz, antzerki musikalaren formatuaren erakargarritasunak, ikasleek perfekzioa lortzeko ahalegintzera bultzatzen du. Gainera, entsegu eta ikuskizun bakoitzean, esfortzu, pertseberantzia, tolerantzia eta ezagumen balioak indartzen dituzte. Beraz, Sample-ek (1964) esan zuen moduan, ikasleek heldutasun soziala eskuratzen dute; eta heldutasun soziala, herritartasun onaren gaitasunekin erlazionatzen du (Fields, 1970). Talde sentimendua sortzen da, komunitate bat sortuz, familia bat (Pérez-Aldeguer, 2013).

Hala nola, Heinig-ek (2001), antzerki musikalean parte hartzen zuten ikasleek beraienganako kontzientzia, konfiantza, autodiziplina eta komunikazio gaitasunak hobetzen zituztela behatu zuen. Horrez gain, Sineder-ek (1995) arriskuak eta erabakiak hartzera laguntzen duela dio; gainera, ikasleek, hezkuntza esperientzia sozialki positibo batez gozatzen dute, ikaskuntza prozesu gogoetatsu batean (Van Houten, 1999).

Ikasleek lorpen sentimendu batez hornitzen dira eta prozesuarekiko ardura hartzen dute. Honekiko atxikimendu emozionala izugarrikoa izaten da; eta ikasleen erantzunek antzerki musikalaren esperientziarekiko, beraien heziketa-onurak begi bistan uzten dituzte. Hala nola, ikuskizuna prestatu eta egin ondoren, ikasle askok beraienganako eta taldeko kideenganako konfiantza handitzen dute. Era berean, adiskidantzak indartzen dira eta berriak egiten dira. Hori dela eta, proiektuarekiko banakako inplikazioa, ikasleen gozamenari proportzionala da, bai prozesuan bai emaitzetan zehar (Boyes, 2003).

Beste zenbait adituen aburuz, hurrengo iritziak lortu dira:

Creo que es un gran método para enseñar a los niños. ¿A qué? ¡A todo! Enseñar a contar mediante coreografías, a hacer ejercicio bailando, a recordar miles de patrones musicales rítmicos. Y sobre todo, es una forma de aprender totalmente basada en la diversión que inculca la disciplina (A. Montesinos, komunikazio pertsonala, urtarrilak 20, 2017).

El teatro musical es bueno para los niños, ya que pueden desarrollar capacidades cognitivas muy importantes. Está demostrado que tanto la música como el teatro ayudan a nuestro cerebro a registrar mejor los recuerdos. También libera endorfinas, aumentando las sensaciones positivas y haciéndonos sentir relajados (A. Díaz, komunikazio pertsonala, urtarrilak 22, 2017).

El teatro musical expone a los niños a muchos lenguajes a la vez y les hace abrir la mente a nuevas maneras de expresarse. Uno puede expresarse hablando, cantando, bailando... (D. Rodríguez, komunikazio pertsonala, urtarrilak 31, 2017).

Guzti honen emaitza argia izaten da, ikasleen motibazioa eta jarrera hobetzean, beraien etekin akademikoak gora egiten baitute (Van Houten, 1999). Izan ere, aurretik Curriculumeko gaitasunak eta edukiak garatuko dituzte. Houten-en (1999) ideiak jarraituz, ikasleek, eduki eta gaitasun horiek era esanguratsu batean barneratuko dituzte beraien ikaskuntzarekiko motibazioa gora egitean.

### **1.2.2. Antzerki musikalaren bidez Lehen Hezkuntzako Curriculumak landuz**

Proiektu hau Lehen Hezkuntzako Curriculumarekin erlazionatzeko, hurrengo dekretua erabiliko da: *236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.*

Lan honetan azalduko den esku-hartzea aurrera eramateko egingo diren jardueren arabera, Curriculumaren alderdi ezberdinak landuko dira. Ikasleek antzerki musikala sortuko dutenez, hainbat alderdi landuko dira. Hona hemen Curriculumarekiko hurbilketa orokor bat.

Oinarrizko Hezkuntzaren irizpide orokorrei dagozkenez, honako hauek landuko dira: «gizakien gaitasunak ahalik eta gehien garatea dimentsio guztietan, gizabanako eta pertsona aktibo gisa, garapen sozialarekin eta ingurumenaren garapen jasangarriarekin konprometitua»; «gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu [...] eta bitzita osoan zehar behar diren oinarrizko konpetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko eta gizarteratzeko»; eta «eskolako

bizikidetza egokia izango bada, hezi beharra dago bake positiboan, giza eskubideetan, justizian, elkartasunean eta inklusioan».

Bestetik, Oinarrizko Hezkuntzaren hurrengo xedeak azpimarratu behar dira: «ikasitakoa erabiltzea, modu kontziente eta integratuan, bizitzaren arlo guztietako egoerak eta problemak konpontzeko eta hobetzeko aukera berriak sortuz»; «ikasleak helduarorako eta bizitza oso baterako prestatzea, gizabanako diren aldetik; bizikidetza harmoniatsua garatzearekin eta gizarte justu eta zuzenago bat eraikitzearekin konprometituak»; eta «bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibatzea».

Lehen Hezkuntzan zehar, oinarrizko zehar-kompetentzia batzuk lantzen dira; bizitzako alor eta egoera pertsonaletan, sozialetan, akademikoetan eta lanekoetan, arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak dira. Kasu honetan, Curriculumen xedatzen diren guztiak landuko dira era batean edo bestean; «hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia»; «ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia»; «elkarbizitzarako kompetentzia»; «ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia»; eta «izaten ikasteko kompetentzia».

Horrez gain, diziplina barruko oinarrizko kompetentziak landuko dira; bizitzako maila pertsonalean, sozialean, akademikoan eta laborean arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak. Kasu honetan ere, ia kompetentzia guztiak landuko dira (batzuetan, era ez zuzen batean): «hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia»; «zientziarako kompetentzia»; «teknologiarako kompetentzia»; «gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia»; «arterako kompetentzia»; eta «kompetentzia motorra».

Guzti hori lantzeko, hezkuntza-eskumenak dituen sailak, ondorengo printzipio hauetan oinarritutako metodologia bat sustatuko du: inklusibitatea eta zuzentasuna aplikatzen direla bermatzeko, hezkuntza-eskumenak dituen sailak kompetentzia guztien garapena eta ikasle guztien arrakasta ongien bermatzen duten ikaskuntza- eta irakaskuntza-metodologiak sustatuko ditu.

Horrela izanda, lanaren garapenean zehar, *236/2015 DEKRETU*An oinarritutako kompetentzia desberdinak lantzeko jarduerak azalduko dira.

### **1.2.3. Nola landu antzerki musikala hezkuntza formalean**

Kontuan eduki behar da, antzerki musikala, berez, diziplinartekotasunean oinarritzen den artea dela; aurretik esan den moduan, dantza, antzerkia eta kanta batzen duelako. Horrela izanda, hezkuntza alorrean, antzerki musikalaren bidez Curriculumeko gaitasun eta edukiak diziplinartekotasunean lantzea, osotasunezko ikaskuntza bat ahalbidetuko du.

Antzerki musikala eta Curriculumeko gaitasunak Hezkuntza Formalean barneratzeko, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) erabiltzea proposatzen da, diziplinartekotasunaren gako baita. Irakaskuntza estrategia honek, ikasitako gaitasunen eskolatik kanpoko erabilera ahalbidetzen du; ikasleek proiektuak antolatu, inplementatu eta ebaluatu egiten dituzte, formakuntza eredu erreala bat osatzen (Harwell, 1997). Ikasleek proiektuak motibagarriak, dibertigarriak eta erronka moduan aurkitzen dituzte, beraiengan rol aktiboa bideratzen dutelako (Challenge 2000 Multimedia Project, 1999).

Proiektuak lantzeko diziplinarteko irakaskuntza gomendatzen da, denbora luzeko jarduerekin eta ikasleetan oinarritutako (Challenge 2000 Multimedia Project, 1999). Horrela izanda, diziplinarteko lan-proiektu bat sortuko da, eskola ezagutzak uztartzeko. Metodologia honen jatorriak ez daude oso argi; baina, XX. mendearen hasieran, hainbat pragmatikok honi buruzko erreferentzia teorikoak egin zituzten. Hala nola, Dewey-k irakaskuntzaz zuen ikusmoldearen inplementazioarekin eta Kilpatrick, eguneroko bizimodura begira eta ikuspegi globalizatzaile batez hezkuntza-praktika garatzeko komenigarritasunarekin (San Martín Agirre Herri Eskola, 2011).

Guzti hori lantzeko, planifikazioa eta landutako edukiak ez dira aldaezinak izan behar, ikasleen frustrazioa ekiditeko. Beraz, denboralizazio eta planifikazio irekia erabiltzea proposatzen da, ikasle desberdinen beharrei egokitzeko aukera edukitzeko (Perez-Aldeguer, 2013). Irakasleek, planifikazio orientagarri bat egingo dute eta ikasleen beharrei eta abiadurari egokituko dira prozesuan zehar. Hala ere, denbora kontrolatu behar da hau aprobetxatzeko; beraz, irakaslea izango da hau kudeatuko duena, gidari gisa.

Ebaluazioari dagokionez, esku-hartze honetan, behaketa eta ebaluazio formatzailea erabiltzea proposatzen da. Pedro Morales-en (2009) aburuz, «la finalidad de la evaluación formativa no es en principio calificar sino ayudar a aprender, condicionar un estudio inteligente y corregir errores a tiempo. (...) está integrada en el proceso de enseñanza-aprendizaje.» Horrela izanda, ez da egongo momentu bakar bat ebaluazioa egiteko, ahal diren une guztiak erabiliko baitira. Ebaluazio formatzaileari esker, ikasleek nork bere burua ebaluatzen (autoebaluazio) eta taldeka ebaluatzen (koebaluazioa) ikasten dute. Horretarako, ikasleak egiten eta ekiten jarri behar dira, protagonismoa beregan utziz.

Horrez gain, ikaslearen rola aktiboa izan behar dela jakinez, lan hau aurrera eramateko, ikasketa kooperatiboa erabiltzea gomendagarria da. Leioako Berritzeguneko Pilar Etxebarriaren aburuz, Spencer Kagan-ek proposatutako estruktura jarraituz, irakasten dena eta irakasteko modua ikasleen ezaugarri pertsonaletara egokituko da, ikasle guztiak ez baitira berdinak. David W. Johnson, Roger T. Johnson eta Edythe J. Holubec-en aburuz (1999), kooperatzeak batera lan egitea esan nahi du, komuneko helburu batzuk lortzearren. Talde txikietan lan egiten da norberaren eta taldeko kide guztien emaitzak hobetzeko.

Metodologia kooperatibo honen barnean, ohiko zuzendariaren papera aldatu egiten da. Joe Deer-en (2014) aburuz, musikal baten zuzendariaren lana hurrengoa da: «Directors tell stories, (...). He or she decides what's important to highlight in the text and how the story be expressed, (...). In a successful production of even the most complex script, the story emerges clearly and richly for the audience» (1.or). Kasu honetan, irakasleak, gidariaren papera jokatuko du, lanaren mugak zehaztuz eta sorkuntza bidean baliabideak ikasleen eskura jarritz.

Horrez gain, Van Houten-ek (1999), antzerki musikaleko zenbait programa hausnartu zituen eta beraien arteko diferentzia koordinatzaileen ondorioz ematen zela zehaztu zuen. Koordinazio onena erakutsi zuten irakasleek, gurasoak eta hezkuntza komunitate osoa produkzio prozesuan integratu zituztenak izan ziren. Beraz, proiektuan parte hartzen duten irakasleen arteko koordinazioa egotea ezinbestekoa dela esan daiteke.

Hala ere, antzerki musikalaren jarduera hezkuntza alorrean landu ahal izateko eta hau arrakastatsua izateko, honen irakaslearen papera indartu behar da (Perez-Aldeguer, 2013); programa arrakastatsuen eta porrot egiten dutenen arteko diferentzia, irakaslearen prestakuntzari atxikitzen baitio Van Houten-ek (1999). Lehen Hezkuntzako Graduan, arteen inguruko prestakuntza oso txikia da, zientziek eta hizkuntzek baitute pisu gehiena. Horrela izanda, maisu-maistrek, ez dituzte alor honekiko jakintzak jasotzen eta ikasleekin antzerki musikal bat prestatzeko orduan segurtasun falta sentitzen ohi dute. Egoera hau, normalean, musikalak edo honekin erlazionatutako ekintzak ez egitera eramaten du, ezjakintasuna edo beldurra dela kausa.

## **2. ANTZERKI MUSIKALEAN OINARRITUTAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

Esan bezala, proiektu hau aurrera eramateko erabiliko den metodologia «esku-hartzea» izango da. Horretan, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza erabiliz, antzerki musikal bat sortuko da bi hilabetetan zehar Curriculumeko hainbat alderdi diziplinartekotasunean sustatuz. Horrela izanda, abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUA jarraituz, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, Lehen Hezkuntzako arlo guztiak landuko dira: Arte Hezkuntza, Hizkuntzak, Gorputz Hezkuntza, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera, Matematika eta Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza. Hala ere, hauetako batzuk pisu gehiago edukiko dute proiektuan zehar beste batzuk baino.

### **2.1. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA**

Aipatu den moduan, antzerki musikalaren ikerkuntza hezkuntza formalaren alorrean baliabide didaktiko gisa, oso mugatua da. Hala ere, marko teorikoan azaldu den bezala, hainbat autoreen hitzez ikusi ahal izan dugu askotariko onurak dituela.

Horrela izanda, proiektu honen bidez, gaur egungo hezkuntzan pisu gutxiago duten alor batzuk lantzeko aukera aproposa azalduko da (kanta, dantza eta antzerkia); sormena modu erakargarrian sustatzeko era proposatuko da; Curriculumeko eduki eta gaitasunak era didaktiko eta berri batean lantzeko modua; eta proiektuen bidez diziplinartekotasunean lantzeko baliabidea dela aurkeztuko da.

## 2.2. ARAZO-EGOERA

Proiektu hau aurrera eramateko, Gasteizko Samaniego eskolan Lehen Hezkuntzako 3.Bko ikasleek (*ikusi 1. eranskina*) parte hartuko dute. Ikasle askok, familia kanpotarren tradizioen eraginez, arte eszenikoen diziplinetan jaiotzeko talentuaz baliatuz, antzerki musikal bat aurrera eramatea proposatu da. Baina, nola lotu antzezlan eta Curriculumeko gaitasunak Hezkuntza Formalean barneratzeko?

Horrela izanda, proiektu honen helburua hurrengoa da: «Antzerki musikala Curriculumeko gaitasunak diziplinartekotasunean lantzeko baliabide didaktiko gisa erabiltzearen onurak». Bestetik, hona hemen proiektuaren ataza: antzerki musikalaren bidez diziplinarteko proposamen bat egitea.

## 2.3. ESPAZIO ETA DENBORAREN ANTOLAKETA

Esku-hartze hau aurrera eramateko bi hilabete eta erdi erabiliko dira; baina, tarte horren barruan denboralizazioa irekia izango da, ikasleen garapenen arabera antolatuko baita.

Jardueraren arabera, espazio desberdinak erabiliko dira; hauen artean: gelako mahaiak, gelako espazio librea, polikiroldegia eta musika gela.

Saio batzuetan zehar Heziketa Fisiko eta Musikako orduak erabiliko dira musikala prestatzeko. Ondoren, tutorearen orduak moldatuko dira proiektuaren inguruko jarduerak eta entseguak egiteko. Azken honetarako, musika gelara joango gara hau libre dagoen orduetan.

## 2.4. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Eskolako zuzendaritza taldea eta irakasle tutorearekin hitz egin ondoren, musikala gaztelaniaz sortzea erabaki da. Izan ere, ikasle gehienak kanpotarrak dira eta hauetako askok ez dute gaztelera ama hizkuntzatzat. Beraz, hau ere lantzearen beharra ikusi da. Gehienek gaztelera euskara baino hobeto menperatzen dute, baina, hori onuragarritzat ikusi zen bai sormen prozesua, bai abestien interpretazioa eta ulermena lantzeko.

Horrela izanda, gidoia eta abestiak gazteleraz egingo dira eta gainerako prozesua eta taldearen arteko komunikazioa, euskaraz.

## 2.5. PRINTZIPIO METODOLOGIKOAK

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza erabiliko da esku-hartze hau aurrera eramateko; hain zuzen ere, diziplinarako lan-proiektu bat. Horretarako, ikasketa kooperatiboaren estruktura erabiliko da, eta irakasleak gidariaren papera jokatu du, sormena prozesua sustatuz eta ikasleak motibatuz. Modu honetan, irakasleak ez dira izango «irakasten» duten bakarrak, ikasleak ere, lan kooperatiboko talde txikietan, elkarri «irakasteko» gai eta elkarri laguntzeko gauza izango dira. Bestetik, proiektua aurrera eramateko, irakasle taldearen arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

Horrez gain, aipatutako ebaluazio formatzailea erabiliko da ikaskuntza prozesua errazteko. Hona hemen Pedro Morales-ek (2009) ikertutako zenbait datu:

<b>EBALUAZIO FORMATZAILEA</b>	
Noiz?	Maiztasunez , ebaluazioa ikaskuntza prozesuan integratua.
Nola?	Metodo sinpleak, informalak eta askotarikoak. Adb.: froga motzak formaltasun gradu ezberdinekin, autoebaluazioa, koebaluazioa, test motzak, ariketa pertsonal sinpleak, talde lanak, ariketak TICak erabiliz...
Kalifikazioa?	Pisu gutxikoa. Egin den edo ez kontuan hartzea. Motibazioa.

1. taula. Ebaluazio Formatzailea.

## 2.6. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

Proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide beharko dira. Hauen artean, abestien aukeraketa eta hauen itzulpena (ingelesez daudenez, gaztelerara itzuli beharko dira), musika entzuteko gailuak, *atrezooa* sortzeko material plastikoak, kamiseta birziklatuak jantziak egiteko, ordenagailuak informazio bilaketa egiteko...

## 2.7. JARDUEREN ZERRENDA

Jarraian, proiektuan zehar egingo diren jarduerak aurkeztuko dira. Arloka bananduta daude, irakasleen prestakuntza prozesua errazteko ; hala ere, ikasleekin lan egitean ez dira beti jarduerak arloaren arabera bananduko. Eskola ordutegia ez da guztiz mantenduko eta tutoreak haren orduak moldatuko ditu proiektua aurrera ateratzeko eraginkorki. Bestetik, jarduerari emango zaien ordu kopuru orientagarria



azaltzen da, ikasleen eboluzioaren arabera moldatuko baita. Proiektua, beranduago azalduko diren lau fasetan banatuko da, jarduerak faseetan kokatuak daude taulan.

JARDUERA	ARLOA	SAIOAK	I.F	II.F	III.F	IV.F
<b>HIZKUNTZAK</b>						
1.	Istoriaa asmatu.	2	X			
2.	Gidoia idatzi.	2	X			
3.	Abestien letrak ulertu eta transmititu.	1	X			
4.	Greziako mitoak irakurri.	10		X		
5.	Testua pasatu, ahoskera eta ulermena landu.	3		X		
6.	Testuinguruari buruzko aurkezpena landu eta egin.	5		X	X	X
7.	Musikalaren aurkezpena landu eta egin.	3		X	X	X
<b>ARTE HEZKUNTZA</b>						
8.	Abestiak ikasi eta landu.	10	X	X		
9.	Atrezzoak egin (ontziak, atzeko tenplua eta mosaikoa).	6		X		
10.	Antzerki musikalaren entseguak egin (publikorik gabe eta publikoarekin) eta entseguaren grabaketa analizatu.	10		X	X	
11.	Antzerki musikalaren antzezpena.	5				X
12.	Buztinezko panpinak sortu.	1		X		
<b>GORPUTZ HEZKUNTZA</b>						
13.	Dantzak sortu taldeka.	4	X			
14.	Dantzak landu talde handian.	8		X		
<b>NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA</b>						
15.	Istoriok garai batean kokatu (Antzinako Grezia).	1	X			
16.	Testuinguruari buruz ikertu, liburuxka sortu eta informazio iturriak (ordenagailuak -IKT-, liburuak...) kudeatu.	10		X		
17.	Antzinako Greziari buruzko informazioa landu (koadernotxoa eta «Kahood!» erabiliz -IKT-).	6		X		
<b>MATEMATIKA</b>						
18.	Simetria landu grekak eginez (IKTak).	4		X		
19.	Simetria landu Greziako maskarak eginez.	2		X		
<b>HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA</b>						
20.	Taldeak egin eta lan ardurak banatu.	1	X			
21.	Ikasketa kooperatiboa sustatu.	*	X	X	X	X
22.	Ikuskizun trukea Marianistas eskolarekin.	1				X
23.	Proiektuaren erakusketa.	*				X
<b>IKT</b>						
24.	Gurasoentzat gonbidapenak egin (Word).	2		X		

2. taula. Jardueren zerrenda, saio kopurua eta hauek burutzeko fasea.

## 2.8. CURRÍCULUMAREKIN LOTUZ

Proiektuan zehar egingo diren jarduerak, 2. taulan aztertutakoak, Oinarrizko Hezkuntzaren Currículumarekin lotuko dira hurrengo taulan:

CURRICULUMA	JARDUERA
<b>ZEHARKAKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK</b>	
Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.	PROIEKTU GUZTIAN ZEHAR LANDUKO DIRA
Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.	
Elkarbizitzarako konpetentzia.	
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.	
Izaten ikasteko konpetentzia.	
<b>OINARRIZKO HEZKUNTZAREN XEDEAK</b>	
Ikasitakoa erabiltzea, modu kontziente eta integratuan, bizitzaren arlo guztietako egoerak eta problemak konpontzeko eta hobetzeko aukera berriak sortuz.	PROIEKTU GUZTIAN ZEHAR LANDUKO DIRA
Ikasleak helduarorako eta bizitza oso baterako prestatzea, gizabanako diren aldetik; bizikidetzaren harmoniatsua garatzearekin eta gizarte justu eta zuzenago bat eraikitzearekin konprometituak.	
Bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibatzea.	
<b>IRIZPIDE OROKORRAK</b>	
Gizakien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea dimentsio guztietan, gizabanako eta pertsona aktibo gisa, garapen sozialarekin eta ingurumenaren garapen jasangarriarekin konprometituak.	PROIEKTU GUZTIAN ZEHAR LANDUKO DIRA
Gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu [...] eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko konpetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko eta gizarteratzeko.	
Eskolako bizikidetzaren egokia izango bada, hezi beharra dago bake positiboan, giza eskubideetan, justizian, elkartzunean eta inklusioan.	
<b>PROIEKTUAREN HELBURU DIDAKTIKOAK</b>	
Idazmen sortzailea sustatzea.	1,2
Irakurketa, ulermena eta idazketa lantzea.	1,2,3,4,5
Ozen eta ahoskera egokiarekin irakurtzea eta hitz egitea.	5,7,10,11
Arte eszenikoaren mundura gerturatzea (dantza, kanta eta antzerkia).	8,10,11,13,14
Arte plastikoak lantzea.	9,12,18,19,23
Informazio iturriak kudeatzea eta testuinguru zehatz bati buruzko jakintzak deskubritzea eta lantzea.	15,16,17,24
Simetria lantzea.	18,19
Talde lan kooperatiboa, talde kohesioa eta motibazioa lortzea.	GUZTIAK
<b>PROIEKTUAREN EDUKIAK</b>	
Idazmen sortzailea.	1,2
Irakurketa, ulermena eta idazketa.	1,2,3,4,5
Irakurketa ozena eta ahoskera egokia.	5,7,10,11
Arte eszenikoak (dantza, kanta eta antzerkia).	8,10,11,13,14
Arte plastikoak.	9,12,18,19,23
Informazio iturriak kudeaketa eta testuinguru zehatz bati buruzko gerturatzea.	15,16,17,24
Simetria.	18,19
Talde lan kooperatiboa, talde kohesioa eta motibazioa.	GUZTIAK
<b>PROIEKTUAREN EBALUAZIO ADIERAZLEAK</b>	
Testuak egiten ditu, idazmen sortzaileaz baliatuz.	1,2
Irakurketa eta idazketa lanak egiten ditu eta hauek ulertzen ditu.	1,2,3,4,5
Ozen eta ahoskera egokiarekin irakurtzen eta hitz egiten du.	5,7,10,11
Arte eszenikoaren diziplinetan gogotsu ibiltzen da.	8,10,11,13,14

Arte plastikoak lantzean jarrera aktiboa erakusten du.	9,12,18,19,23
Laguntzaz, informazio iturriak kudeatzen ditu eta testuinguru zehatz bati buruzko jakintzak barneratzen ditu.	15,16,17,24
Simetria ulertzen du.	18,19
Talde lan kooperatiboetan lan egiten du, talde kohesioa bultzatzen du eta motibazioz lan egiten du.	GUZTIAK

3. taula. Proiektuko jarduerak Curriculumarekin lotuz.

### 3. LANAREN GARAPENA

Ikusi dugunez, proiektu honek hainbat jarduera hartzen ditu bere baitan (ikusi 1. *eranskina*). Proiektua lau fasez osatuta dago: hasierako fasea, garapen fasea, aplikazio- eta komunikazio-fasea eta orokortze- eta transferentzia-fasea.

#### 3.1. HASIERAKO FASEA

Proiektua hasteko, ikasleei lehenengo galdera bat egingo zaie: «Zer da antzerki musikal bat?» Honen azalpena eta adibide batzuk jarri ondoren, proiektua eta lanaren (plangintza aurkeztuko zaie, egingo diren jarduera batzuk aurreratuz. Musikalaren abiapuntua aurretik erabakitako 3 abesti izango dira, umeei Broadway-ko musikaletan egindakoak; beraz, abestiak azalduko dira. Bestetik, proiektuan zehar lan egiteko 3 talde heterogeneoak egingo dira eta lan ardurak banatuko dira, ikasketa kooperatiboaren metodologia jarraituz.

Tutorearekin batera, musikalaren gidoia sortzen hasiko dira. Horretarako, guztion artean abestien letrak irakurriko dira hauen mezua ondo ulertzeko eta istorioaren abiapuntua edukitzeko. Jarraian, umeei zenbait garai aurkeztu ondoren, bat aukeratu eta istorioa garai batean kokatuko dute. Ondoren, talde bakoitzak istorio bat asmatuko du (hasiera, korapiloa eta amaiera eginez) eta talde bakoitzeko hizlariak besteen aurrean irakurriko dute. Talde guztien ideiak lotuz, istorio final bat aurkeztuko da. Eskema horrekin, gidoia idatziko da; horretarako, talde bat, nirekin gidoia idazten dagoen bitartean, gainerako biek tutorearekin egongo dira beste gauzetan lanean.

Bitartean, musikako orduetan abestiak ikasten hasiko dira eta heziketa fisikokoetan dantzak taldeka sortzen. Ni proiektuaren zuzendari moduan egongo naiz, baina, lan egiteko irakasle espezifikoen laguntza edukitzea onuragarria izango da.

### 3.2. GARAPEN FASEA

Bigarren fase hau izango da proiektuaren luzeena, ikaskuntza eraikiko duten jarduerak garatuko baitira. Gainera, fase honetan zehar musikalak forma hartuko du eta proiektuko jarduera handienak eramango dira aurrera.

Horrela izanda, gidoia prest edukita, antzerki musikalaren entseguak egingo dira. Hala ere, hau orokortasunean landu baino lehen, atalka landuko da: testua pasatu, ahoskera eta ulermena landuko da; abestiak landuko dira intonazioa, erritmoa eta interpretazioa indartuz; eta dantzak talde handian egingo dira.

Musikalaren istorioa ondo ulertzeko, pertsonaien egoera ezagutzea ezinbestekoa denez, musikala kokatzeko testuinguruari buruz ikertuko da taldeka (kasu honetan, Antzinako Grezia izan da) eta informazio horrekin liburuxka bat sortuko da. Horretarako, ezinbestekoa da, informazio iturriak (ordenagailuak, liburuak...) kudeatzen ikastea.

Antzinako Greziari buruzko informazioa kudeatuko da koadernotxo baten bidez eta kultura hobeto ezagutzeko xedez, Greziako mitoak irakurriko dira. Horrez gain, liburuxketan pilatutako informazioarekin, aurkezpen bat prestatuko da maila berdineko klaseei ikasitakoa erakusteko.

Antzerki musikalaren ikuskizuna borobiltzeko, ezinbestekoa da atrezzoa egitea, umeentzat errazagoa baita interpretazioan sartzea baliabide materialaz baliatuz. Tenperak eta birziklatutako kartoia erabiliz, Greziako tenplu bat, ontziak eta mosaikoa bat sortuko dira eta buztinezko panpinak egingo dira. Gainera, Greziako maskarak eta grekak eginez, simetria era erakargarri batean lantzeko aukera paregabea izango da.

Dena martxan egonda, musikala aurkezteko hitz batzuk presatzea baino ez da falta; horrela, eskaraz eta gazteleraz, proiektuan zehar egindakoa laburtuko da ikasleek irakurriko duten aurkezpen batean.

### 3.3. APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA

Fase honetan, amaierako emaitza ikusteko aukera edukiko dute ikasleek.

Alde batetik, testuinguruari buruzko aurkezpenaren entsegu orokorra egingo da, PPTa erabiliz eta ikasleen irteerak eta sarrerak eginez. Bestetik, ikuskizunaren entsegu orokorra egingo da, aurkezpenarena eta musikalarena. Gainera, amaierako fasera heldu baino aste bat lehenago, entsegu orokor berezi bat egingo da, publikoarekin izango baita. Kamara batekin grabatuko da eta ikasleek klasean grabaketa analizatzeko aukera izango dute, geure burua ikusten asko ikasten baitugu.

Horrez gain, «Kahoot!» ikasketa plataforma erabiliz eta ikasleei jolas moduan planteatuz, Antzinako Greziari buruz ikasitakoa ikusteko aukera edukiko du irakasleak.

### **3.4. OROKORTZE- ETA TRANSFERENTZIA-FASEA**

Fase hau izango da prozesua itxiko duena eta ikasleek eskuratutako ikaskuntzak integratuko dituzte. Lehenik eta behin, testuinguruari buruzko aurkezpena egingo dute beste klaseen aurrean, Antzinako Greziari buruz ikasitako guztia begi bistan utziz. Ondoren, proiektuan zehar landutako guztia batuko da eszenatoki gainean eta ikasleek talde kohesioa erakusteko aukera edukiko dute antzerki musikala antzeztuz.

Behin ikuskizunak amaituta, proiektuaren erakusketa bat egingo da eskolako korridoreetan material guztiarekin: erabilitako liburuak, atrezzoak, hausnarketa lana...

Amaitzeko, ikuskizun trukea Marianistas eskolarekin egingo da. Ikasleek beste zentro honetara joango dira bertako ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan nirekin egindako musikala ikustera. Gainera, Marianistas eskolako musikal taldea Samaniegon egindako musikalera gonbidatuak izango dira.

## **4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK**

Proiektuaren esku-hartzea aplikatu ondoren, emaitzak aztertu behar dira. Horretarako, hasieran ezarritako helburua gogora ekarriko da: «Antzerki musikala Curriculumeko gaitasunak diziplinartekotasunean lantzeko baliabide didaktiko gisa erabiltzearen onurak.» Horrekin batera, proiektu honen ardatz nagusiak kontuan eduki behar dira: sormena sustatzea eta diziplinartekotasunaren bidez curriculumean planteatzen diren gaitasunak lantzea. Hau kontuan hartuta, jarraian, inplementazioaren ebaluazioa azalduko da.

<b>PROIEKTUAREN EBALUAZIOA</b>		
<b>EBALUAZIO MOTA: FORMATZAILEA</b>		
Ebaluazio formatzaileari esker, irakasleek eta ikasleek prozesu guztian zehar beraien ikaskuntza egoeraren berri edukitzeko aukera eduki dute eta hobetzeko ahalegin handiak egin dituzte.		
<b>NOIZ?</b>		<b>NOLA?</b>
Maiztasunez, ebaluazioa ikaskuntza prozesuren barne integratua.		Metodo sinpleak, informalak eta askotarikoak. Behaketa.
<b>EMAITZEN ADIERAZLEAK</b>	<b>ARIKETEN ZENBAIT ADIBIDE</b>	<b>EMAITZAK ETA EBALUAZIOA</b>
Froga motzak.	Talde dantzak erakutsi.	Talde bakoitzak egindako lana ikusi da eta beraien arteko desberdintasunak begi bistan geratu dira. Modu honetan, atzeratuagoak egon diren taldeek beraien lan erritmoa bizkortu dute eta motibazioa handitu dute.
	«Kahood!».	Greziari buruz asko ikasi dutela erakutsi du frogak. Ikasle gehienek erantzunen %80a asmatu dute eta gogo handiz ibili dira, jolas bat balitz bezala hartu baitute.
Aurkezpenak.	Testuinguruari buruz.	Ikasleek alde zurretiko jarrera egokia erakutsi dute aurkezpenak etxean eta klasean landuz. Aurkezpenetan azalpen argiak eman dituzte eta egokitasunez hitz egin dute besteen aurrean, gogo handiz.
	Musikalaren aurkezpena.	
Ariketa pertsonal sinpleak.	Koadernotxoa.	Ariketa hauetan denetarikoa erantzunak egon dira. Orokorrean ondo egin badituzte ere, galderak erantzuteko eta zenbait atal egiteko zailtasunak eduki dituzten umeak egon dira.
	Maskarak.	Ondo ulertu dute simetriaren gakoak, baina ikasle batzuk zailtasunak eduki dituzte atal txikiak egiteko. Emaidza oso ona izan da eta jarrera aktiboa erakutsi dute jardueran osoan zehar.
Talde lanak.	Istoria asmatu.	Hasieran gatazkak sortu dira beraien artean ikasle batzuk beste batzuk baino jarrera aktiboagoa dutelako. Baina, aurrera egin ahala eta irakaslearen laguntzaz, talde moduan lan egiten ikasi dute ondorio onekin.
	Hausnarketa lana.	
Ariketak IKTak erabiliz.	Grekak.	Erraztasun handiagoak erakutsi dituzte grekak TICen bitartez lantzerako orduan. Hala ere, zenbaketa ondo egiteko arazoak eduki dituzte askok eta birritan errepikatu behar izan dute.
	Gonbidapenak,	Ez daude ohituak Word programa erabiltzera eta zalantza asko eduki dituzte; baina, gogo handiz ibili dira eta ikasteko grina erakutsi dute.
Autoebaluazioa eta koebaluazioa.	Entseguak.	Testua, abestiak eta dantzak ondo dakizkiten edo ez ikusi dute entseguetan zehar. Gainera, klaseko kide guztiek hauek menperatzearen garrantzia ikusi dute.
	Bideoaren analisia.	Bakoitzak bere abileziak eta akatsak ikusteko aukera eduki du, baita ikaskideenak ere. Oso positiboa izan da.
<b>PROIEKTUAREN EBALUAZIO ADIERAZLEAK</b>		<b>EMAITZAK ETA EBALUAZIOA</b>
Testuak egiten ditu, idazmen sortailez baliatuz.		Proiektuan zehar Curriculumeko gaitasunak landu dira era zuzen eta ez zuzenean emaitza positiboekin; adibidez:

Irakurketa eta idazketa lanak egiten ditu eta hauek ulertzen ditu.	<p>atrezzoak egiteko simetria ikasiz, Antzinako Greziako pertsonaiak landu dira irakurmena indartuz, musikala testuinguruan kokatu ondoren honen historia ikasiz, idazketa landuz, ikerketa lanak eginez, arte plastikoak eta eszenikoak eginez...</p> <p>Informazio iturriekin lan egitean erantzun positiboak egon dira eta kudeaketan, modu ezberdinetan, gogotsu ibili dira. Horrekin batera, Antzinako Greziako testuinguruari buruz asko ikasi dutela esan daiteke.</p> <p>Amaierako ikuskizuna arrakasta hutsa izan da. Musikala bost alditan errepikatu da eta ikasleek heldutasuna eta profesionaltasuna erakutsi dute guzti hauek. Horrez gain, jendaurrean hitz egiten trebatu egin dira, bai musikala bai aurkezpenak eginez. Arte eszenikoekiko gozamenak erakutsi dute sortutako istorioa ikaskideei eta familiei erakutsiz.</p> <p>Gainera, beraien artean lagundu egin dira lan egiteko orduan eta talde kohesioa erakutsi dute eta kooperazioan lan egiten ikasi dute. Ikasleen motibazioa handitu egin da eta jardueretik interes handia erakutsi dute. Adibidez, bidalitako lana baino gehiago egin dute edo lana aurreratu dute etxean.</p>
Ozen eta ahoskera egokiarekin irakurtzen eta hitz egiten du.	
Arte eszenikoen diziplinetan (dantza, kanta eta antzerkia) gogotsu ibiltzen da.	
Laguntzaz, informazio iturriak kudeatzen ditu eta testuinguru zehatz bati buruzko jakintzak barnatzen ditu.	
Simetria ulertzen du.	
Talde lan kooperatiboetan lan egiten du, talde kohesioa bultzatzen du eta motibazioz lan egiten du.	
<b>DIZIPLINARTEKOTASUNA</b>	<b>EMAITZAK ETA EBALUAZIOA</b>
Ikasleek aurre egiten diete arazoei, kasuei edo proiektuei era integratuan, antzerki musikala ardatz moduan edukiz.	Musikal bat sortzearen ardatza edukita, Curriculumeko arloak eta gaitasunak landu dira erraztasun handiz. Koordinazioa beste irakasleekin erraza izan da eta ez dira gatazkak sortu. Ikasleek diziplinartekotasunean eta orokortasunean lan egin dute, arloak desberdindu barik.
<b>SORMENA</b>	<b>EMAITZAK ETA EBALUAZIOA</b>
Sormena Curriculumeko helburuetan aboratu behar da heziketa-eduki eta estrategia moduan, hezkuntza eta ebaluazio jardueretan.	Sormen gaitasuna ustiatu dute proiektu osoan zehar; adibidez: istorioa asmatzen, gidoia idazten, dantzak sortzen, atrezzoak egiten...
	Ikasleek sormen gaitasun handiak dituztela erakutsi dute. Honen bidez Curriculumak lantzean etekin onak lortu dira eta ikasleek motibazio handiz hartu dute.
<b>ONURAK</b>	<b>EMAITZAK ETA EBALUAZIOA</b>
Sozialak.	<p>Aipatutako onurak baieztatu daitezke. Ikasle bakoitzean erantzun desberdinak ikusi dira, baina, talde moduan aurrera egin dute.</p> <p>Proiektua hasi zenetik hau amaitu arte, ikasleen talde giroa hobetu egin da beraien arteko konfiantza indartu delako. Ikasle guztiek gogotsu parte egin dute, beraien motibazioa eta jarrera hobetuz. Batzuk proiektua gogo barik hartu zuten; baina, aurrera joan ahala eta jarduera gehiago proposatu heinean, gero eta motibazio gehiago erakutsi dute. Beste batzuk, lehenengo unetik, gogo ikaragarriak erakutsi dituzte eta interes eta esfortzu handiarekin lan egin dute.</p> <p>Obra aurkeztean talde bakar bat izan dira eta kideenganako eta beraienganako konfiantza egon da.</p> <p>Gainera, beraien ardurak heldutasunez bete dituzte eta etekinetan islatu da.</p>
Heldutasuna.	
Beraienganako kontzientzia, konfiantza, autodiziplina eta komunikazio gaitasunak indartu.	
Beraienganako eta taldeko kideenganako konfiantza gogortu.	
Motibazioa eta jarrera hobetu.	
Etekin akademikoak gora egin.	

4. taula: Proiektuaren ebaluazioa.

Horrela izanda, antzerki musikala hezkuntza formalean potentzial didaktiko egokia dela ondorioztatzen da. Aukera ikaragarriak eskaintzen ditu ikasleentzat eta irakasleentzat. Gainera, hezkuntza formalean hain ahaztuta dauden arte eszenikoak lantzen dira. Dantza, antzerkia eta kanta banandurik landu ohi dira; baina, hauek elkartzean osotasun handia lortzen dugu ikaskuntza prozesuan. Beraz, antzerki musikala hezkuntza formalean baliabide didaktiko gisa erabiltzera animatzen dut irakasle oro, ikasleek betirako gogoratuko baitute esperientzia, Curriculumeko gaitasunak era didaktikoan lantzeko aukera delako eta hezkuntza berritzeko eta gaurkotzeko erreminta paregabea delako.

Amaitzeko, etorkizunari begira proiektua hobetzeko zenbait atal aztertuko dira:

<b>ETORKIZUNARI BEGIRA</b>	
<b>MUGAK</b>	
<b>MUGA MATERIALAK</b>	<b>MUGA SOZIALAK</b>
Baliabide materialen falta. Ez dago eszenatokia, argiak, ikusleentzako aulkiak...	Eskolako kideen kolaborazioa. Kasu honetan ez bada gertatu ere, zenbait eskoletan zuzendaritza taldeak ez du proiektu hauekin apustu egiten. Beste irakasleen laguntza oso garrantzitsua da proiekturako.
Baliabide ekonomikoen falta atrezzoak egiteko, jantziak sortzeko...	Beste kasu batzuetan, irakasleen prestakuntza falta izan daiteke muga garrantzitsu bat. Horregatik, irakasle desberdinen kolaborazioa baliagarria izan daiteke diziplina desberdinei aurre egiteko.
Denbora falta. Bi hilabete eta erdi bakarrik edukita, zenbait jarduera alde batera uzten dira eta proiektuari ez zaio ahal den probetxu guztia ateratzen.	
<b>PROIEKZIOAK</b>	
Ikasleek benetako eszenatoki batean antzezteko aukera edukitzea.	
Denbora gehiagorekin egiten bada, ikasleek ardura gehiago eduki ahal dituzte. Adib.: antzerkiko teknikari lanak (argiak pentsatu, aretozaina), musikalaren kartela sortu, musikalaren zenbait abesti sortu (musika eta letra edo letra bakarrik, adinaren arabera), aurkezpenaren PPTa ikasleek egitea...	
Eskolako beste taldeak tartean sartzea. Adibidez, nagusiek txikientzako atrezzoak, jantziak, abestiak sortzea...; edo nagusiek teknikari lanak egitea ikuskizun egunetan.	

5. taula: Etorkizunari begira.

Proiektuak emaitza positiboak eman ditu ikasle eta irakasleengan; eta antzerki musikala baliabide didaktiko gisa erabiltzea aukera egokia dela egiaztatu da.



## 5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alcázar, A. (2010). *Didáctica de la música: La pedagogía de la creación musical, otro enfoque de la educación musical*. Cuenca, España: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Boyes, S. E. (2003). *A balancig act: The effects of participation in a school musical on its performers*. Tesis, Universidad de Toronto, Toronto, Canadá.
- Challenge 2000 Multimedia Project. (1999). *Why do projectbased learning?* San Mateo, CA: San Mateo County Office of Education.
- Deer, J. (2014). *Directing in musical theatre. An essential guide*. New York, USA: Routledge, 3.
- Delalande, F. (1995). *La música es un juego de niños*. Buenos Aires, Argentina: Ricordi.
- DK Publishing. (2015). *Musicals: the definitive illustrated story*. London, England: Dorling Kindersley Limited.
- Eisner, F. (2004). *El arte y la creación de la mente. El papel de las artes visuales en la transformación de la conciencia*. Barcelona, España: Editorial Paidós Arte y educación.
- Etxebarria, P. *Aprendizake cooperativo. Estructuras de Spencer Kagan*. Leioa, España: Leioako Berritzegunea. [Kontsultatua 2017ko urtarrilak 16: <http://nagusia.berritzeguneak.net/es/index.php>]
- Euskal Autonomia Erkidegoa. *Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma. 236/2015 DEKRETUA*. Abenduak 22.
- Fields, J. C. (1970). *The musical theatre production: A guide for the high school director*. Dissertation Abstracts International, 31 (08), 4320 (UMI No. 702633).
- Harwell, S. (1997). Project-based learning. In W.E. Blank & S. Harwell (Eds.), *Promising practices for connecting high school to the real world* (pp. 23–28). Tampa, USA: University of South Florida.
- Heinig, R. B. (2001). Stagecoach theatre schools: England's franchised musical theatre training. *Stage of the Art*, 12 (4), 23-27.
- Howard, P. M. (1990). *The development of a standard form to identify performance problems in high school productions of musical theatre with application to selected works*. Dissertation Abstracts International, 51 (05), 1541.
- Jonhson, Johnson & Holubec. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Buenos Aires, Argentina: Paidós, 14.
- Menchén, F. (1998). *Descubrir la creatividad. Desaparecer para volver a aprender*. España: Pirámide.

- Morales, P. (2009). *Ser profesor: una mirada al alumno*. Guatemala: Universidad Rafael Landívar, 41-98.
- Pérez-Aldeguer, S. (2013). *El teatro musical como vehículo de aprendizaje*. Castellón de la Plana, España: Universitat Jaume I. Servei de Comunicació i Publicacions.
- Real Academia Española. (2017). *Diccionario de la lengua española* (23ª ed.). [Kontsultatua 2017ko urtarrilak 16: <http://dle.rae.es/?id=Q9E5jP9>]
- Retegui, J. (2004). *Mendeberrri*. Arrasate, España: Mondragon Unibertsitatea. [2017ko abuztuak 10: <http://www.mondragon.edu/eu/aktualitatea/aldizkariak/muniveristas/muniversitas1/erreportajea-mendeberrri>]
- Ruano, K. eta Sánchez, G. (coords.) (2009). *Expresión corporal y educación*. Sevilla: Wanceulen.
- Sample, A. D. (1964). *A Study of the Suitability of Selected Musicals for Performance by the High School Student*. Unpublished Doctoral Dissertation, Columbia University, New York, USA.
- San Martin Agirre Herri Eskola. (2011). *Diziplinarteko Proiektuetan Oinarritutako Metodologiaren Inguruko Gogoeta*. [Kontsultatua 2017ko ekainak 22: [http://www.sanmartinhibergara.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uid=2e269aa7-298e-4660-ac0b-6478a00176be&groupId=69243](http://www.sanmartinhibergara.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uid=2e269aa7-298e-4660-ac0b-6478a00176be&groupId=69243)]
- Sjoerdsma, R. D. (2004). Promoting vocal health in the production of high school music theater. *Journal of Singing*, 60 (3), 223-335.
- Sineder, C. D. (1995). *Teaching Broadway: Musical theatre pedagogy in the classroom*. Tesis, Universidad del Estado de San José, California, USA.
- Torre, S. (2001). *Calendario de formación creativa*. Barcelona, España: PPU
- Torre, S. eta Violant, V. (2003). *Creatividad aplicada*. Barcelona, España: PPU/Autores
- Van Houten, K. E. Z. (1999). *High school musical theatre and the meaning students give to their involvement*. Dissertation Abstracts International, 60 (06), 1959.
- Wals, D. eta Platt, L. (2003). *Musical theatre and American culture*. Westport, CT: Praeger.
- Watkins, R. L. (2005). *The musical theater experience and the extent to which it affects high school students*. Dissertation Abstracts International.

## 6. ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: JARDUEREN ZERRENDA ETA AZALPENA

Proiektua hasteko, ikasleei lehenengo galdera bat egingo zaie: «Zer da antzerki musikal bat?» Honen azalpena eta adibide batzuk jarri ondoren, proiektua eta lanaren plangintza aurkeztuko zaie, egingo diren jarduera batzuk aurreratuz.

JARDUEREN ZERRENDA ETA AZALPENA			
JAR.	DESKRIPZIOA	SAIOAK	FASEA
20.	Taldeak egin eta lan ardurak banatu.	1	I.F
<p>Hasteko, ikasleak 3 taldetan banatuko dira, kanta, dantza eta idazmena/antzerkia gogoko dutenak elkartuz. Ondoren, 3 talde horiek nahastuko dira 3 talde heterogeneo sortuz, 6 pertsonetakoak. Talde bakoitzeko kideen artean lan ardurak banatuko dira: 2 idazkari, 2 hizlari, koordinatzailea eta bolumenaren arduraduna. Talde hauekin proiektu osoan zehar lan egingo da, istorioak sortzeko, testua ikasteko, dantzak egiteko...</p>			
21.	Ikasketa kooperatiboa sustatu.	*	I./II./III./IV.F
<p>Ikasketa kooperatiboa, proiektu osoan zehar sustatuko da lan taldeekin, eta talde handian errespetuz lan eginez. Hala ere, hasieran, arauak eta konpromisoak idatziko dituzte ikasleek taldeka eta komunean jarriko dira guztien iritzia ezagutzeko.</p>			
3.	Abestien letrak ulertu eta transmititu.	1	I.F
<p>Lehenik eta behin, abesti egokiak aukeratu behar dira. Horretarako, mamia duten abestiak bilatu behar dira, testuingurua guztiz mugatzen ez dutenak eta umeentzat erakargarria suertatu daitekeenak. Bestetik, beraien artean lotura eduki ahal duten abestiak bilatu behar dira. Horregatik, umeek musikaletan antzetzen dituzten abestiak hautatu dira; beraien adineko umeak kantatzen ikustean, ikasleen motibazioa pizteko.</p> <p>Lehenengo abestia «Esta vida está fatal» izango da, Annie film musikalarena. Bigarrena, «If only you would listen», School of Rock musikalarena. Amaitzeko, «Revolting Childrens» abestia, Matilda musikalarena.</p> <p>Letrak ondo ulertzeko, bakoitzak, letraren kopia bat edukiko du. Azken biak ingeleraz daudenez, gaztelaniara itzuli behar dira beraiek letra ulertzeko; izan ere, antzerki musikalaren helburu bat mezua transmitzea da, beraz, abestean, denok ulertzen duten hizkuntza bat erabili behar dugu. Horrela, denen artean irakurriko dira letrak eta hauen mezua bilatuko da.</p>			
15.	Istoriok garai batean kokatu (Antzinako Grezia).	1	I.F
<p>Abestiek osatzen duten mamia ezagututa, istorioa asmatu baino lehen, ikasleei zenbait garai proposatuko zaizkie eta beraiek, errespetuzko eztabaida baten bitartez, musikalaren garaia erabakiko dute. Horretako, aukera desberdinen alde onak eta txarrak aterako dira. Kontuan eduki behar dute antzetzeko erakargarria izan behar dela (jantziak edota dekoratuak) eta garai hori buruz ikasteko gogoak eduki behar dituztela.</p>			
1.	Istoria asmatu.	2	I.F
<p>Ikasleek istorio bat asmatu beharko dute (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 1</i>). Horretarako, 3 abestien mezutik abiatuz, beraien sormena martxan jarriko dute. Hasi baino lehen, berriro ere, mezua argituko dugu (ume batzuk beraien bizitza bidezkoa ez dela uste dute arrazoi zehatz batengatik -zein?-, norbaiti eskatzen diote esan behar dutena entzutea -nori?, zer?-, umeak direla aldarrikatzen dute eta umeen gauzak egin nahi dituztela -zergatik?-).</p> <p>Ondoren, 3 taldeetan, istorioa sortuko dute. Kontuan eduki behar dituzten bi gauza bakarrak hurrengoak dira: ezarritako testuinguruan kokatu behar dute eta protagonismoa kolektiboa izan behar da. Ondoren, istorioak komunean jarriko dira besteen aurrean irakurri eta guztien ideiak lotuz, gidoia egiteko eskema sortuko da.</p>			

2.	Gidoia idatzi.	2	I.F
<p>Ikasleen ideiekin eskema bat sortuko da (<i>ikusi 3. ERANSKINA, C</i>). Honek hiru atal edukiko ditu, talde bakoitzak atal baten gidoia idazteaz (eta antzetzaz) arduratuko da. Hainbat istorio idatzi badituzte ere, ez dute inoiz gidoi bat idatzi; beraz, gidoi bat erakutsiko zaie adibide moduan eta irakaslea gidari gisa egongo da.</p> <p>Lehendabizi, hasierako atala idatziko da; horretarako, irakasle bat (ni), lehenengo taldearekin egongo da hau idazten eta tutorea gainerako bi taldeekin beste arloetan lanean. Ondoren, bigarren taldea gidoia idaztera pasatuko da, hasierako atala irakurri ondoren, beraien atala idatziko dute; beste biek irakaslearekin dauden bitartean. Gauza bera egingo du hirugarren taldeak.</p> <p>Amaieran, irakasleak ikasleen gidoia zuzenduko du eta ikasle bakoitzak dialogo kopuru berdina (3 interbentzio kasu honetan) duela ziurtatuko du.</p>			
13.	Dantzak sortu taldeka.	4	I.F
<p>Heziketa fisikoko klaseetan, abestien koreografiak landuko dira. Karaokeak editatu ditut hauen luzera egokitzeko; beraz, abestiak letrarekin ere moztu beharko dira ikasleek entseguak egin ahal izateko. Kasu honetan ere, irakasleak gidari moduan egongo dira.</p> <p>Talde bakoitzari abesti baten zati bat esleituko zaio eta dantza asmatzeko denbora eta baliabideak (musika, espazioa) utziko zaie. Modu honetan, dantza guztiak koreografiatuko dira, baina, talde bakoitzak atal bat baino ez du asmatu beharko.</p>			
8.	Abestiak ikasi eta landu.	10	I./II.F
<p>Abestiak oso luzeak direnez eta zailegiak diren atalak daudenez, karaokeak moztu eta tonura egokitu dira, 2-3 minutako abestiak sortuz.</p> <p>Musikako klaseetan abestiak ikasiko dituzte (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 6</i>). Kasu honetan, irakasleak (nik) abestiak irakatsiko ditu eta ikasleek imitazioz ikasiko dituzte. Hala ere, baliabide didaktiko desberdinak erabiliko dira ikaskuntza prozesua esanguratsua eta motibagarria suertatzeko. Hala nola, ahots jolasak, kanta letra barik egitea, taldeka kantatu bata bestearen kontra, klasetik ibiliz abestu...</p> <p>Galdera erantzuna erabiliko da abestiak ikasteko baliabide printzipal moduan. Hasieran, letra erritmoarekin (intonazio barik) landuko da eta ondoren, intonazioa sartuko da. Behin abestia ondo landuta edukita, interpretazioa sartuko da; jadanik, abestiaren mezua ezagutuko dute eta beraien istorioan kokatuko dute, beraz, abestiaren mezua transmititzeko erremintak erakutsiko zaizkie. Azkenik, abestiak mugimendu eszenikoekin eta beraiek egindako dantzekin egingo dira.</p>			
14.	Dantzak landu talde handian.	8	II.F
<p>Heziketa fisikoko klaseetan eta tutorearen zenbait ordutan, taldeka sortutako abestien dantzak komunean jarriko dira (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 5</i>). Modu honetan, ikasle talde bakoitza irakasle bihurtuko da egun batean zehar, beraien dantza besteei erakutsiz. Bestetik, ikasleek dantza bakoitzean gogoratu beharko dituzten posizioak jarriko dira. Ahal den heinean, ikasle guztiak aurreko lerroan egongo dira abesti batean zehar.</p> <p>Horrez gain, irakasleak (nik) erakutsitako dantza bat ikasiko dute, «Revoltosos» abestiaren leloa hain zuzen ere.</p>			
16.	Testuinguruari buruz ikertu, liburuxka sortu eta informazio iturriak (ordenagailuak, liburuak...) kudeatu.	10	II.F
<p>Ikasleek testuinguru eta garai zehatz bati buruzko liburuxka bat egingo dute (<i>ikusi 3. ERANSKINA, E</i>). Hausnartzeko sei atal banatu dira: kokapen geografikoa, garia, arropa motak, hizkuntza, erlijioa eta jolas motak. Hirukoteak egingo dira (6ko taldeak bitan banatuz) eta talde bakoitzak atal bati buruz hausnartzeaz arduratuko da. Horretarako, fitxa orientagarri bat edukiko dute, beraien lana errazteko, bilatu beharrezko informazioa gutxi gora behera zehaztuz. Orriak bisualki erakargarriak izango dira, beraien arreta deitzeko eta fitxa tradizionalarekin ez lotzeko (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 3</i>). Informazioa bilatu ondoren, garbira pasatuko dute eta orrialde guztiak lotuko dira liburuxka bat sortzeko.</p>			

4.	Greziako mitoak irakurri.	10	II.F
<p>Irakurketak, garrantzi handia dauka Curriculumean; beraz, aukera paregabea da hau proiektuan barneratzea ikasleen motibazioa handitzeko. Gainera, ikasleek erabakitako testuinguru oso aberatsa da haren mitologian. Horrela, Antzinako Greziako mitoak irakurriko dira. Talde hau irakurketa lantzeko hainbat proiektuen barne dagoenez, une horiek erabiliko dira mitoak irakurtzeko. Adibidez: irakur laguna (nagusiek egindako tutorizazioa) edota tertulia literarioak (Berritzeguneko langile bat etortzen da gelara tertuliak egitera).</p>			
5.	Testua pasatu, ahoskera eta ulermena landu.	3	II.F
<p>Ikasleek idatzitako antzerki gidoia lantzeko, zenbait jarduera desberdin egingo dira. Lehendabizi, oso garrantzitsua da ikasleek esan behar dutena ulertzea; horregatik, lehenengo irakurketa ozenki egingo da zalantzak argitzeko. Hala ere, beraiek egin dutenez istorioa, erraz ulertuko dute honen mezua. Ondoren, ahoskera lantzeko jolasak egingo dira; adibidez, atzamarra aho aurrean jarriz, mingainarekin hau ukitu behar da bokal bakoitzean. Amaitzeko, testua pasatzeko jolasak egingo dira; adibidez, ikasleak kasetik ibiltzen egongo dira, aulki bat egongo da erdian eta beraien esaldia esan behar dutenean aulkira joan beharko dira esertzera.</p>			
17.	Antzinako Greziari buruzko informazioa landu (koadernotxoa eta « <i>Kahood!</i> » erabiliz).	6	II.F
<p>Antzinako Greziari buruzko koadernotxo bat prestatu da euskarako orduetan egiteko. Horrekin, testuinguruari buruzko jakintzak handituko dira eta euskara landuko dute. Koadernotxoa, jarduera motaren arabera, une desberdinetan egingo da: batzuetan, etxera eramango dute egiteko, besteetan, klasean egingo dute taldeka edo bakarka. Mitoak irakurriz, hausnarketa lana eginez eta koadernotxoa osatuz lortutako jakintzak frogatzeko, jolas moduan, «<i>Kahood!</i>» bat egingo dute (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 8</i>). Talde osoa aldi berean ordenagailu gelara joango da eta bertan froga egingo dute. Ez da azterketa bat bezala planteatuko, honen emaitza ez da garrantzitsua izango; hots, egitean, umeek nabarituko baitute erantzunak badakizkiten edo ez eta horrekin autoebaluatuko dira.</p>			
9.	Atrezzoaren egin.	6	II.F
<p>Atrezzoaren egiteko, tenperak, paper handia eta birziklatutako kartoia erabiliko da. Horrekin, Greziako tenplu bat egingo da atzeko aldean jartzeko eta buztinezko ontziak imitatuko dituzten batzuk sortuko dira kartoiarekin. Gainera, koloretako orriak erabiliz, mosaiko bat egingo da (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 2</i>). Horretarako, irakasleek oinarriak marraztuko dituzte eta ikasleek, taldeka, margotuko dute. Talde guztiak atrezzoaren atal desberdinetan parte hartuko dute, batetik bestera mugituz. Bestetik, denbora faltagatik, ikasleek ezin dituztenez musikalaren jantziak sortu eta erosteko dirurik ez dagoenez, kamiseta zuri birziklatuak erabiliko dira. Eskolatik kanpoko pertsonen eskatuko zaizkie kamiseta zuri handiak. Beso bat mahukatik sartuz eta bestea kamisetaren lepotik pasatuz, tunika bat sortuko da. Korda batzuk erosi dira gerrikoak egiteko. Ikasleek etxetik sandaliak ekarriko dituzte; ikasleren batek ez edukitzekotan eta beste batek bi edukitzekotan, honi utziko dizkio, ezer ez erosi behar izateko.</p>			
18.	Simetria landu grekako eginez (IKTak).	4	II.F
<p>Atrezzoaren osatzeko, matematikako eduki hau lantzea oso aukera egokia da. Izan ere, buztinezko ontziak grekekin dekoratzen ziren Antzinako Grezian. Beraz, musikalerako kartoiez egindakoak, grekekin dekoratuko dira. Hauek egin baino lehen, ordenagailu gelara joango gara grekako egitera web orri batean. Modu honetan, IKTak erabiliz, errazago ulertuko dute honen funtzionamendua. Ondoren, greken konposaketa ulertuta, ikasle bakoitzak bi motatako grekako marraztu eta margotuko ditu: lehenengoa ontzietan jarriko da eta bigarrena atzeko dekoratuetan (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 17</i>).</p>			
19.	Simetria landu Greziako maskarak eginez.	2	II.F
<p>Aurreko jarduerarekin erlazionatuta eta simetria era didaktiko eta ez zuzen batean lantzeko, Greziako maskarak egingo dira, kartoi mehe zuriak erabiliz (<i>ikusi 6. ERANSKINA, 4</i>). Horretarako, zenbait eredu erakutsiko dira eta beraiek maskara bat sortuko dute nahi duten</p>			

moduan dekoratuz. Maskara horiek <i>atrezzo</i> moduan erabiliko dira denak elkarrekin jarriz.			
12.	Buztinezko panpinak sortu.	1	II.F
Taldea, eskolako tailerrera joango da eta bertan buztinezko panpinak egingo dira. Izan ere, ikasleek egingo duten hausnarketan, «jolas motak» atalean, Antzinako Greziako umeek erabiltzen zituzten jolasei buruz hausnartuko dutenez, buztinezko panpinekin jolasten zutela jakingo dute. Beraz, hauek egitearen esperientzia biziko dute umeek.			
24.	Gurasoentzat gonbidapenak egin (Word).	2	II.F
Ordenagailuetara joango da taldea, kasu honetan, musikaleko gonbidapenak egitera ( <i>ikus</i> 3. ERANSKINA, D). Horretarako, Google eta Word erabiliko dira; batez ere, Word erabiltzeko trikimailu batzuk ikasteko. Ikasleak binaka jarriko dira eta pausuka-pausuka joango gara gonbidapena egiten. Hasteko, Google-en, gonbidapenaren fondoan jartzeko irudi bat bilatuko da. Ondoren, Word-en kopiatuko da eta testu lauki bat jartzen irakatsiko diegu. Arbelean idatzi beharreko testuaren eredu bat egongo da, haiek kopiatzeko. Gainera, testu laukiari fondoa eta marrak kentzen eta letraren iturria eta kolorea aldatzen irakatsiko zaie. Bestetik, idazteko baliabide batzuk irakatsiko zaizkie, letra larria nola jarri «Bloq Mayús» tekla erabili gabe, komatxoak nola jarri, testu laukia zentratu...			
10.	Antzerki musikalaren entseguak egin (publikorik gabe eta publikoarekin) eta entseguaren grabaketa analizatu.	10	II./III.F
Musikalaren entseguak egiteko musika gelara joango da taldea, hau libre baitako zenbait ordutan zehar. Oso garrantzitsua da ikuskizunaren entseguak egin ahal izatea hau egingo den tokian; modu honetan, ikasleek beraien tokiak hobeto gogoratzeko. Beraz, zenbait egunetan zehar erabiliko da musika gela entseguak egiteko. Ikuskizunaren estreinaldia baino lehen, talde batzuk gonbidatuko dira entsegu bat publikoarekin egiteko, froga moduan. Gainera, kamara batekin grabatuko da entsegua eta hurrengo saioan ikasleekin ikusiko da. Entseguaren grabaketa analizatzeko orduan oso garrantzitsua da errefortzu positiboa; hau da, ez dira ikasleen akatsak zigortuko, baizik eta ondo egindako gauzak indartuko dira. Hala ere, hobetzeko gauzak ere kontuan edukiko dira, beti errespetu osoz esanez.			
6.	Testuinguruari buruzko aurkezpena landu eta egin.	5	II./III./IV.F
Ikasleek maila berdineko klaseen aurrean egingo dute Antzinako Greziari buruzko aurkezpena. Horretarako, beraiek bilatutako informazioa erabiliko da. Denbora falta dela eta, irakasleek PPT bat egingo dugu informazio guztia jarriz (3. ERANSKINA, F). Ikasle bakoitzari atal bat esleituko zaio eta kopia bat emango zaio testua praktikatu ahal izateko. Aurkezpenaren entseguak egingo dira eta besteen aurrean hitz egiteko zenbait aholku emango zaizkie. Dena prest egonda, beste klaseak gonbidatuko dira eta aurkezpena egingo da.			
7.	Musikalaren aurkezpena landu eta egin.	3	II./III./IV.F
Ikuskizuna hasi baino lehen, aurkezpen bat egon behar da. Hau, ikasleek egingo dute. Denbora falta dela eta, irakasleek testu bat idatziko dute eta ikasleek irakurriko dute. Testua euskaraz eta gazteleraz izango da, irakasleek, ikasleek eta gurasoek ulertzeko. Honetan, bi hilabeteetan zehar egindako lan guztia laburtuko da, musikala ikusiko duten pertsonen proiektuari buruz jakiteko. Oso garrantzitsua da ikasleek aurkezpena segurtasunez egitea; horregatik, entseguak egingo dira eta testuinguruaren aurkezpena egiteko aholkuak indartuko dira. Aurkezpenaren grabazio bat egingo da (4. ERANSKINA).			
11.	Antzerki musikalaren antzezpena.	5	IV.F
Antzerki musikala 5 alditan antzeztuko da. Koordinazioa eta talde lana ezinbestekoa izango da egun hauetan. Ikasle bakoitza haren jantziez arduratuko da; baina, irakasleen laguntza edukiko dute dena ondo jartzeko. Antzezpena hasi baino lehen, erlaxazio une bat egingo da, ikasleak lasai ateratzeko antzezpenera. Ondoren, beste taldeei harrera egingo zaie Greziako musika jarriz. Irakasle batek (tutoreak) soinu teknikari lanak egingo ditu eta bestea (ni) zuzendaria			

izango da. Dena prest edukita, antzezpena egingo da. Ikasleek betirako gogoratu ahal izateko, kalitate oneko grabazio bat egingo da; horretarako, zinemagile baten laguntza eskatuko da (4. <i>ERANSKINA</i> ).			
22.	Proiektuaren erakusketa.	*	IV.F
Proiektuan zehar erabilitako eta sortutako baliabide guztiekin, korridoreetan jarriko den erakusketa bat egingo da. Modu honetan, eskolako ikasle guztiek Antzinako Greziari buruz ikasteko aukera edukiko dute. Horrela izanda, hainbat gauza kokatuko ditugu: musikalaren atzeko <i>atrezzoak</i> , mosaikoak, maskarak, ontziak grekekin, buztinezko panpinak, egindako hausnarketa lana, behatutako liburuak			
23.	Ikuskizun trukea Marianistas eskolarekin.	1	IV.F
Gasteizko Marianistas eskolan, eskolaz kanpoko jarduera moduan, antzerki musikala egiten da Bigarren Hezkuntzako ikasleekin (nik neuk eramaten dut). Kurtso amaieran, ordu erdiko musikal bat aurkeztuko da eta Samaniegoko 3.Bko ikasleak ikustera gonbidatuak izan dira. Era berean, Marianistas eskolako musikaleko taldea, Samaniegoko musikalera izango da gonbidatua. Egun honetarako, ikasleek, eskerrak emateko gutunak idatziko dituzte musikalean parte hartzen duten gazteentzat eta antolatzaileentzat. Modu honetan, eskolatik harago eramango da egindako lana eta ikasleek musikal bat ikusteko aukera edukiko dute.			

6. taula: jardueren zerrenda eta azalpena.

## 2. ERANSKINA: SAMANIEGO ESKOLAREN TESTUINGURUAREN AZTERKETA

Jarraian aurkituko dugun informazio gehiena Ikastetxearen Hezkuntza Proiektutik eta Ikastetxearen Urteko Planetik aterata dago. Hala ere, zenbait informazio, eskolako langileei ahozko galderak egiten lortu dut.

SAMANIEGO ESKOLAREN TESTUINGURUAREN AZTERKETA
IKASTETXEAREN INGURUNEA
<p>Samaniego Eskola, 1930ko hamarkadan sortu zen . Hiri erdialdean kokatuta zegoen eta hiria hazten zen neurrian, gure eskola aldaketa horietara egokitzen zen. 60. eta 70. hamarkadan, industrializazioaren garaian, leku askotatik etorritako langileen seme-alabei harrera egin zien eskolak eta ikasle berrientzako beharretara egokitu zen.</p> <p>1997. urtean bitan zegoen banatuta. Alde batetik, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskola, eta bestetik, Bigarren Hezkuntzako institutua. Bi ikastetxe izan arren, beraien arteko harremanak beti izan dira estuak. Garai horretan, Hegoamerikako eta Magrebeko immigrazioa Gasteizen handitu egin zen.</p> <p>2014 urtean, bi ikastetxeek bat egin zuten berriro, ikasleen heziketa prozesua hobetu jarraitu ahal izateko. Izan ere, ikastetxe bakarra izanik, ikasle guztiekiko harreman estuagoak ditugu eta errazagoa da haien behar bereziak aztertzea eta ikasketa prozesua hobeto bideratzea.</p> <p>Gaur egun, kultura desberdinetako familiek osatzen dute eskola, beraien hezkuntza prozesua aniztasunez betetzen.</p>
IKASTETXEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK
<p>Esan bezala, Samaniego ikastetxea integratua da; Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza etapak ditu. Horregatik, eredu integratu batean lan egiten dugu bai B, bai D ereduan. Eskola osoan, guztira, 720 ikasle daude. 198 Haur Hezkuntzan, 531 Lehen Hezkuntzan eta 189 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.</p> <p>Haur eta Lehen Hezkuntzaren ordutegia hurrengo da: 9:00etatik 12:30tara goizez eta 15:00etatik 16:30tara arratsaldez. Aldiz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarena, 8:00tik 14:10ra da.</p> <p>Bestetik, hauek dira eskolaren printzipioak: kultura-artekotasuna, inklusibitatea, tolerantzia, euskalduna, eleaniztasuna eta gizarteratzea. Gainera, eskolak, metodologia aktiboa, parte-hartzailea, inklusiboa, pertsonalizatua eta aniztasunari erantzuten diona erabiltzen du. Askotariko jarduerak egiten dira, taldekoak nahiz bakarkakoak, ikasleen aurre-ezagutzetatik eta praktikatik abiatzen direnak. Amaitzeko, teknologia berriak, hezkuntza praktikaren oinarriko baliabideak direla esan behar da (gela bakoitzak arbel digitala dauka, ordenagailu pertsonalak, informatika gelak, eskolako sarea).</p>
ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA
<p>Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) da Samaniegoko Hezkuntza Proiektua kudeatzen duen arduradun nagusia. Eskola bizitzari dagozkion funtsezko erabakiak hartzen ditu eta ikastetxearen autonomiaren esparruan funtzionamenduaren arduradun gorena da. Gutxienez, hiru hilean behin biltzen da.</p> <p>Klaustroa ikastetxeko aginte organoa da, koordinazio didaktikorako organo gorena da. Halaber, irakasleok parte hartzeko organoa da. Gutxienez, hiru hilean behin biltzen da.</p> <p>Ikastetxeko eguneroko funtzionamenduaren oinarria pedagogia-batzordea da. Astean behin biltzen da eta bertan ziklo guztietako ordezkariak dagoenez, informazioa emateko eta erabakiak hartzeko erabiltzen da.</p> <p>Bestetik, ziklo eta mailako taldeak daude, zikloetako koordinatzaileak, departamenduak, proiektuen arduradunak, ikasleriaren eta familien ordezkariak eta administratibo eta zerbitzuen langileria. Horrez gain, Guraso-eskola eta AMPA dago (eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dituen).</p>



Lehen Hezkuntzako irakasleek hurrengo bilera planifikazioa dute: astelehenean, mailako bilera; asteartean, ziklo bilera; asteazkenean formakuntza-programazioak; ostegunean, guraso bilera; eta ostiralean, proiektuak-planak.

Atal honekin amaitzeko, eskolan jarduten diren hainbat proiektu aipatuko dira: hezkidetzaren proiektua, Agenda 21, Bidelagun (ordutegiz kanpo ikasleei laguntza akademikoa ematea), IKT plana, Sare Hezkuntza, Gaztelera familientzat, Zientzia Hezkuntza, Hauspoa, «Ayuda en Acción» (DBHko liburu batzuk erosteko), Robotika, Artium museoarekin antolatutako elkar-laguntza, Iparralde Gizarteko psikologoek eskainitako tailerrak gurasoentzat, Bake Eskola proiektua (nik neuk sortutakoa), Berritzeguneko aholkulariarekin elkar-lana eta ikuskariaren laguntza.

#### AZPIEGITURAK ETA ZENTROAREN ZERBITZUAK

Eskolak hiru pisu eta azpi-pisu bat ditu. Gainera, Haur Hezkuntzarako eraikin txiki bat dauka atzeko aldean. Horrez gain, azpiegitura hauetaz osatzen da: bi jangela, bi liburutegi, informatika gelak, 4 polikiroldegi ditu, patio handi bat eta txiki bat, bi musika gela, bi plastikako tailerrak, teknologiako gela,

Bestetik, hurrengo zerbitzuez gozatzen du: HH eta LHko ikasleek liburutegiko zerbitzua dute astelehenean ostegunera 10:00etatik 15:00etara eta 16:30etatik 17:30etara; eta ostiralean 9:00etatik 15:00etara (liburutegiko irakaslearen laguntza tutorizatua jasotzen dute). DBH, aldiz, astelehenean ostiralera 11:55etatik 12:50etara. LHko informatika gela zabalik dago asteazken eguerdian 13:30etatik 14:30etara eta ostegun arratsaldean 16:30etatik 17:30etara. DBHkoa, aslehen, astearte eta asteazken arratsaldetan irekita dago, 15:30etatik 17:00etara. Jantokiko zerbitzua dago eguerdi guztietan (guztira 726 ikasle erabiltzen dutena). DBHko ikasleentzat, Orientazio Akademikoa dago.

Ikusi dugun moduan, eskolako ordutik kanpoko laguntzak daude (liburutegia, bidelagun, Bake Eskola, Laguntza eta Hauspoa). Beraz, garrantzi handia ematen zaio ikasle hauek errefortzua jasotzeari.

Horrez gain, AMPA-k bideratzen dituen hainbat eskolaz kanpoko jardura daude, hala nola, aurre-eskolania, eskolania, saskibaloia, ingelera, robotika, musika eta mugimendua, patinaje...

#### HIZKUNTZA ERREALITATEA ETA HIZKUNTZA-TRATAERA

Eskolaren helburua hurrengoa da: ikasle guztiek E.A.E.ko bi hizkuntza ofizialak jakitea eta erabiltzea. Beste aldetik, hizkuntzari esker, kultura sortu, sendotu eta zabaltzen da. Beraz, euskara erabiltzeari eta ikasteari lehentasuna ematen zaio lehenengo urteetan, eredu hori gizartean daukan presentzia urriagoa konpentsatzeko, eta normalkuntza bultzatzeko.

Horretaz gain, ezin da ahaztu, gaur egungo gizartea eleanitza eta kultura-anitza izanik, eskolak herritar eleanitzak lortu behar dituela. Nahitaezkoa da hizkuntza ofizialez gain, atzerriko hizkuntzaren bat eskaintzea; eskola honetan, ingelesa. Hau indartzeko, ikastetxea gero eta jardura gehiago ingelesez egiten saiatzen da. Horretarako, Hauspoa programaren barruan eta jardura osagarrietan saiatzen dira ingelesaren esparrua zabaltzen.

#### ZENTROAREN ARAZOAK ETA KEZKAK

Samaniego osatzen dutenek, zerbitzu bezala ulertzen dute heziketa, bai ikasgeletara doazen ikasleei, bai gizarteari. Herritar guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidean oinarrituz, pertsona bakoitza bere identitateaz harro sentitzen bada, besteekin konpartitzeko gai izango dela pentsatzen dute, eta besteekin bai ikasi bai irakatsi (berdinen arteko heziketa). Izan ere, eskolako familiak kultura desberdinetakoak dira mugikortasuna da beraien ezaugarri adierazgarrienetako bat. Aniztasun hori aberastasun eta indargune gisa ikusten dute eskolan eta horrek motibatzen ditu ikasketa prozesuan.

Aniztasunari erantzuteak haur bakoitzaren motibazioei, beharrei, interesei eta ezauguera-estiloari egokitutako erantzuna eskaintzea dakar berarekin. Irakasle-taldeak hurren alde pertsonalak kontuan hartu eta errespetatu egin behar ditu, ikasle bakoitzaren behar pertsonaletara egokituz.

**TALDEAREN EZAUGARRIAK**

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 3.B klasea aztertuko da, 18 umez osaturik dagoena. Hauetako askok Espainian jaio dira, baina, bere gurasoak kanpotarrak dira; beste askok, beraien herrialdeetan jaio dira eta momentu desberdinetan etorri dira. Izan ere, aurten Brasiletik etorri den ikasle bat dago, duela bi hilabete ailegatu zen eskola honetara. Ijito bat dago, bi txinatar, Errumaniako bat, ipar eta zentroafrikarrak eta hegoamerikarrak daude. Ikusten denez, aniztasuna nagusitzen da klasean, eskolan bezala.

Orokorrean, talde lasaia da, umeen gatazkak egoten dira, talde guztietan bezala; baina, irakasleak bideratuta, beraien artean hitz egiten konpontzen dute. Gainera, taldea txikia izanez, ikasleen premiak asetzeko aukera handiagoa da. Hala ere, ikasleen bizitza pertsonalak ez dira oso errazak izan beraien bizitzan zehar; beraz, klase txikiago batekin askoz hobeto lan egingo zen. Nire ustez, klasearen ezaugarriak, irakaslearen arabera aldatzen dira, honek moldatzen dituelako umeen jarrerak eta sortzen duelako klasearen giroa. Kasu honetan, nire iritz apalean, irakaslea paregabea da; magia dauka bere irakasteko moduan eta horixe bera sortzen du umeengan.

*7. taula: Samaniego eskolako testuinguruaren azterketa.*

### 3. ERANSKINA: ERABILITAKO MATERIALA

#### A) Abestien letraz gaztelaniaz ikasleek abesteko eta istorioa asmatzeko

<b>ESTA VIDA ESTÁ FATAL</b>
<b>IT'S A HARD KNOCK LIFE</b>
<b>ANNIE</b>
<p><b>Esta vida está fatal, esta vida es criminal. No hay regalos, hay carbón. Si te quejas, al rincón.</b></p> <p><b>Esta vida está fatal, esta vida es criminal. No hay regalos, hay carbón. Si te quejas, al rincón.</b></p> <p>El invierno aquí dura todo el año, nunca hay sol solo veo oscuridad. Los desprecios ya ni nos hacen daño. Más fácil es rendirse que luchar. Nadie viene de noche a consolarte. Nada importa si lloras o si no.</p> <p>Quando en sociedad, y en soledad, cada día es, un infierno más. (...)</p> <p><b>Esta vida está fatal, esta vida es criminal. No hay regalos, hay carbón. Si te quejas, al rincón.</b></p> <p><b>¡ÉSTO ESTÁ FATAL!</b></p>

8. taula: Esta vida está fatal.

<b>SI SOLO ME ESCUCHARAS</b>
<b>IF ONLY YOU WOULD LISTEN</b>
<b>SCHOOL OF ROCK</b>
<p>Tú hablas <u>siempre</u> sin <u>parar</u> y yo no <u>puedo</u> ni <u>susurrar</u>. Si una <u>moneda</u> <u>lograra</u>, <u>por cada cosa</u> sin contar. * No importa <u>si</u> es bien o si es mal, ** es que <u>jamás</u> consigo <u>entrar</u>.</p> <p><b>Tengo tanto que hablar si solo me escucharas. Pruebo fuerte cantar pero no oyes nada. ¿No ves que me duele? No puedo más gritar. Pero un día verás, te haré escuchar.</b></p> <p>No ves yo trato de aclarar, que no soy ese niño ya más. Y cuando intento explicar que no me ves a mí en realidad. Y cuando veas que éste es tu plan, descubrirás que quiero volar.</p> <p><b>Tengo tanto que hablar, si solo me escucharas. Pruebo fuerte cantar, pero no oyes nada. ¿No ves que me duele? No puedo más gritar. Pero un día verás, te haré escuchar.</b></p>

9. taula: Si solo me escucharas.

## REVOLTOSOS

### REVOLTING CHILDREN

#### MATILDA

Uoo!

Nunca más va a hablar alguien por mí,  
nunca más va a robar mi libertad.

Y este día no se olvidará,  
por el derecho de ser muy traviesos.

Nunca más,

(...)

Nunca más

Nunca más  
miedo sentiremos  
porque sabemos que...

**(Si) Somos revoltosos,  
no nos pueden silenciar.  
Canciones con pasión,  
queremos inventar.  
En tiempos revoltosos,  
no damos marcha atrás  
Escuchad lo que decimos.  
¡Revoltosos! (x2)**

Ves que vamos a explotar,  
si no podemos cantar.

Vamos juntos a gritar  
Las manos alzas, las manos alzas.  
Queremos contar,  
y nos van a escuchar.  
Escuchad lo que decimos, ¡revoltosos!

**Somos revoltosos,  
no nos pueden silenciar.  
Canciones con pasión,  
queremos inventar  
En tiempos revoltosos,  
no damos marcha atrás  
Escuchad lo que decimos.  
¡Revoltosos! (x2)**

## B) Beranduago irakatsitako abestiaren letra

Ikasleek abestiak oso ondo ikasi dituztenez eta gogo handiz daudenez, abesti berri bat sartzea proposatu dut. Beraz, proiektuaren III. faseko egun batzuetan zehar, patio orduan, nahi izan dutenekin geratu naiz abestia ikasten. Abesti berri honekin musikala ireki eta itxi dugu. Lehenengo aldiaren eredu lasai bat egin dugu eta entseguetara etorri direnak bakarrik abestu dute. Amaierako bertsioan, erritmo biziagoa erabili dugu eta letran aldaketa bat sartu dugu («pronto», «nunca» ordeztuz); gainera, denek abestu dute (besteei entzunez ikasi baitute).

AL CRECER
WHEN I GROW UP
MATILDA
<p>Y al crecer,                      querré salir a pasear al campo,                      y aunque pueda imaginarlo                      sé que nunca (pronto) lo voy a tener.</p> <p>Y al crecer,                      querré estar siempre alegre disfrutando,                      y aunque pueda imaginarlo                      sé que nunca (pronto) lo voy a tener.</p> <p>Y al crecer,                      dulces sueños yo tendré.                      Al Olimpo subiré                      y con los Dioses bailaré.</p> <p>Y al despertar,                      cuando el sol decida hablar,                      podré salir a caminar                      y no volver hasta que quiera yo parar.                      ¡Podré jugar!</p>

11. taula: Al crecer.

**C) Ikasleen ideiak lotuz, nik egindako eskema gidoia egiteko**



<b>REVOLTOSOS EL MUSICAL</b>	
<b>PRESENTACIÓN</b>	
En la época de la antigua Grecia, en una gran casa junto al ágora (la plaza) vivía una ciudadana adinerada. Con ella vivían sus esclavos, 19 niños y niñas que debían servir a la mujer.	
<b>1ª PARTE</b>	
♪	Unos criados se hacen regalos entre ellos, pero la mujer lo ve y se los quita, a cambio les entrega carbón.
♪	La mujer se marcha y les ordena ponerse a trabajar.
♪	Los criados chicos se ponen a limpiar en un lado y las chicas en otro. Hablan sobre la situación.
♪	Estando cada grupo en un lado, empiezan a cantar « <b>ESTA VIDA ESTÁ FATAL</b> ».
<b>2ª PARTE</b>	
♪	Llega la mujer y les encuentra cantando, sin trabajar, y encima los chicos y las chicas están juntos. Se enfada y les manda callar.
♪	Los criados le piden a la mujer salir a jugar al ágora al juego de los huesos. Le explican por qué quieren salir a jugar.
♪	Ella les dice que no, que vayan los chicos a limpiar la cocina y las chicas a limpiar el salón.
♪	Los criados se enfadan y cantan « <b>SI SOLO ME ESCUCHARAS</b> ».
<b>3ª PARTE</b>	
♪	Los criados y las criadas se ayudan a recoger para poder acabar antes y salir a escondidas a jugar.
♪	Cuando han acabado y van a salir a jugar, a alguien se le ocurre la idea de buscar los regalos que la mujer les ha quitado. Para buscarlos desordenan toda la casa.
♪	De repente, escuchan a la mujer llegar, todos guardan silencio y le dan un susto justo cuando entra a la habitación.
♪	La mujer grita y al ver el desorden grita más aún y les llama ¡revoltosos!
♪	Los criados cantan la canción « <b>REVOLTOSOS</b> ».

12. taula: Revoltosos el musical.

**D) Gurasoentzat ikasleek egindako gonbidapenak**



E) Ikasleek egindako hausnarketa lana



### JOLAS MOTAK

**Antzinako Greziako jolas luak**  
horiek ezagutu ditugu!

Abuztuaren 10 egunetan, marra zutako jolasekin.

• Etxeko kulturaren koadrean, indar eta lan agerian dituzte.

**MOTAK:**

- animalak
- Tximeluzorral
- taktak
- Papanjama
- Paktak
- 1/2 taktak
- Xibak
- 10-10

**MATERIALAK:**

• jostailuak

• egitura


• materialak

• haur erabilgarriak

• zutaten

**Egutza:**


- Ohiak
- Buzina
- Buzina
- Animak bereizitako



**DATU INTELEKUALAK:**

Umek ez ezakaten arteko jolasekin. Guk eta jolasekin ezin berrin egun berrin zutako. Jolasekin guk ezin.

Papanjama berrin indar eta lan agerian dituzte. Guk ezin antzinako Greziako jolasekin jolasekin. Guk ezin jolasekin.



### AERDA MOTAK

**EMAKUME LANGILEAK:**

Taika (di-ta) luak eta gorpuzko luak. Kapa (kapa) bat amara ezin.

**GIZON LANGILEAK:**

Taika antzinako erakunde ezin.

**MATERIALAK:**


- Lino (lino)
- Aklia (akia)
- Larrua (larru)

**UMEAK:**


Umek ez ezakaten arteko jolasekin. Greziako jolasekin, Greziako jolasekin. Greziako jolasekin, Greziako jolasekin. Greziako jolasekin, Greziako jolasekin.

**DATU INTELEKUALAK:**


Greziako jolasekin ezin berrin eta Greziako jolasekin. Greziako jolasekin ezin berrin eta Greziako jolasekin. Greziako jolasekin ezin berrin eta Greziako jolasekin.



### HIZUNTZA



**ZEN/ZENISU?** Greziako  $\alpha\beta\gamma$  amara ezin




**NOIEN EGAG?**

K.a. 2000 urtean sortu zen. Adar indar eta lan agerian dituzte. Mendeak eta hizuntza ezin berrin eta Greziako jolasekin.

**NOIEN EGAGUA "TAIKO"?**  $\gamma\epsilon\iota\&\sigma\upsilon$

**HIZIEN EGAG?** Bai, baina urteetan zehar aldatu da.


**SUN?** Grezia eta Txipren hizuntza ohiak da.



**DATU INTELEKUALAK:**

Antzinako Greziaren hondakinetan, hizuntza ezin berrin eta Greziako jolasekin.





**F) Ikasleek hausnarketa egin ondoren, tutoreak eta biok, aurkezpenerako egindako PPTaren adibide batzuk (44 diapositiba guztira)**

**ZER DAGO?**

- Irla asko ditu.
- Euri gutxi egiten duenez, **belarra oso lehorra** dago.
- Olibondoak eta mahatsondoak** ugariak dira.
- Hondartzak** zoragarriak ditu.
- Antzinako **monumentu asko** ikus dezakegu, "Partenon" bezala.

**ZEIN?** Greziako hizkuntza **Greziara**

**NONDIK DATOR?** K.a 2000. urtean sortu zen.

Mendealdeko **hizkuntzetan eragin** handia izan du, euskara barne.

Esanahia → GARAIPENA

**DATU INTERESGARRIAK**

Greziako hiriak "polis" deitzen ziren. Inportanteenak Atenas eta Esparta ziren.

Atenas (polis demokratikoa)

Esparta (polis gerlarria)

Umeak eta batzuetan nagusiak (kirolariak, adibidez), **biluzik** joaten ziren.

**Oinutzik** joaten ziren. Ondoren, sandaliak erabiltzen hasi ziren.

**SINIZMENAK**

Politeistak ziren, **Jaingo asko**tan sinisten zuten.

Jaingoak → **hilezinak** ziren, naturaz gaundiko **botereak** zituzten eta **Olimpoan** bizi ziren. **Hércules**

Heroiak → Jainkoen eta hilkorren seme-alabak ziren.

**JOSTAILU MOTAK**

animaliak

txintxirina

hortolosak (tabak)

xiba

panpina

#### 4. ERANSKINA: MUSIKALAREN GRABAZIOA

Musikala aurkeztu zenean, nik, zuzendari papera jokatu nuen; eszenatokiaren aurrean, albo batean kokatuta, ikasleei zenbait keinu eta argibide emateko. Horregatik, Iñaki Elcano Salanueva zinemagilea laguntzera etorri zen musikala grabatzeko eta honen muntaia egiteko.

Hurrengo tauletan, musikalaren grabazioaren link-ak azaltzen dira. Horrez gain, grabazioa egiteko materialaren fitxa teknikoa daukagu.


<b>REVOLTOSOS</b>	
	EL MUSICAL      MUSIKALA
Musikalaren aurkezpenaren link-a YouTube plataforman	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=UAUOWx-Gbkl">https://www.youtube.com/watch?v=UAUOWx-Gbkl</a>
Antzerki musikalaren link-a YouTube plataforman	<a href="https://www.youtube.com/watch?v=XVwsOEqLYi8">https://www.youtube.com/watch?v=XVwsOEqLYi8</a>

13. taula: musikalaren grabazioaren link-ak

<b>FITXA TEKNIKOA</b>	
Kamara modeloa	Blackmagic Cinema Camera 2.5K
Sentsorearen bereizmen eraginkorra	2400 x 1350
Sentsorearen neurri eraginkorra	15.81mm x 8.8 mm
I. mikrofonoa	Samson C03U Multi-Pattern Condenser
II. mikrofonoa	Rode VideoMic Rycote
Soinu grabaketa	Garage Band Mac
Muntaia	Adobe Premiere Pro CC

14. taula: grabazioaren fitxa teknikoa

5. ERANSKINA: MUSIKALAREN KARTELA



# REVOLTOSOS

MUSIKALA

EL MUSICAL

CPI SAMANIEGO IPI

VITORIA-GASTEIZ



17 de marzo, viernes 15:30h martxoak 17, ostirala

23 de marzo, jueves 11:30h martxoak 23, osteguna  
(ABIERTO AL PÚBLICO/IREKIA)

23 de marzo, jueves 15:30h martxoak 23, osteguna  
(ABIERTO AL PÚBLICO/IREKIA)

24 de marzo, viernes 15:30h martxoak 24, ostirala  
(ABIERTO AL PÚBLICO/IREKIA)

Idea original  
Intérpretes

alumnos/as de 3.B

Idea originala  
Antzezleak

-ko ikasleak

## 6. ERANSKINA: PROIEKTUAREN ARGAZKIAK

Gurasoek irudi baimena sinatu dute eskolak ikasleen argazkiak xede akademikoarekin erabiltzeko. Hona hemen proiektuan zehar egindako zenbait argazki:



1. irudia: Musikalaren istorioa sortzen.



2. irudia: Antzinako Greziako mosaikoak lantzen.



3. irudia: Liburutegian Greziari buruzko informazioa bilatzen.



4. irudia: Simetria lantzen Greziako maskarekin.



5. irudia: Heziketa Fisikoan dantzak prestatzen.



6. irudia: Musikan abestiak ikasten musikako irakaslearekin.



7. irudia: Antzinako Greziako buztinezko figurak egiten.




8. irudia: Greziar buruz ikasitakoa frogatzen Kahoot programarekin.



9. irudia: Greziari buruzko aurkezpena egiten.



10. irudia: Greziari buruzko aurkezpena egiten (II).



11. irudia: Greziari buruzko aurkezpena egiten (III).



12. irudia: Aurkezpena egin ondoren alboko klaseko ikasleekin.



13. irudia: Musikalaren entseguak musika gelan tutorearekin.



14. irudia: Musikalaren aurkezpena praktikatzen tutorearekin.



15. irudia: Musikalaren entsegua nik bilatutako kamiseta berrerabilatuekin.



16. irudia: Musikalaren entsegua.



17. irudia: Musikalaren eszenatokia ikasleek egindako atrezzoarekin: murala, grekak, jarroiak, maskarak, mosaikoa...



18. irudia: Antzezenaren eguna, grabatzera etorri den zinemagilearekin.



19. irudia: Antzezenaren eguna, Berritzeguneko gizonarekin, musikala ikustera etorri dena.



20. irudia: Antzezenaren eguna, tutorea eta biok eskerrak ematen.